Hegats

Literatur aldizkaria

37

Txosten Monografikoa:
HIRIAK

Elkarrizketa:
ISABEL SAROBE

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur aldizkaria

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Burua: Tere Irastortza

Kideak: Maite Gonzalez Esnal
Tere Irastortza
Arantxa Urretabizkaia

Zuzentzailea: Andoni Sarriegi

Koordinatzailea: Hasier Rekondo

Diseinua eta maketazioa: K3 Inprimategia
Amillaga, 1 - 6. pabiloia. 20570 Bergara

Euskal Idazleen Elkartea
Zemoria 25
20013 Donostia
Tel.: 943.27.69.99. Faxa: 943.27.72.88
P.E.: eie@eie.euskalnet.net

ISSN: 1130-2445
L.G.: SS-359/90

Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen *Hegats* aldizkariko kolaboratzaileen iritziak.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 7

Literaturbideak:

Harkaitz Cano. *Kanpoko hiriaz (egunerokoa).* 13

Gotzon Garate. *Kanpoko hiriaz (gutunak).* 27

Kritikabideak:

Juan Ramon Makuso. *Hiri politikotik hiri poetikora.* 43

Urtzi Urrutikoetxea. *Bilbo gure literaturan.* 55

Txosten monografikoa: Hiriak.

Itxaro Borda. *Metropolis.* 69

Joseba Iriondo. *Suntsitzen ditugun hiriak.* 79

Elkarrizketa:

Isabel Sarobe. *Hiriak.* 97

Liburu-iruzkinak:

Oier Guillan. Urtzi Urrutikoetxearen *Auzoak. Gertuko auzoen auziak.* 109

Ixiar Rozas. Italo Calvino *Le città invisibili* Emakumeen izenak dituzten matriuskak. 115

HITZAURREA

"Leku batekoa baino gehiago, leku batzuetakoa. Leku batekiko harremana ez duzu zertan ideologia baten galbahetik pasatu, eta modu askotara interpreta dezakezu. Ni, zalantzarik gabe, nire jaioterrikoa naiz. Eta harreman berezia daukat Bilborekin. Eta Marokorekin. Politikaren arlora pasatzean ez nekike esaten lekukotasun honek zer antolamendu, zer izen beharko lukeen. Euskal Hiria erabiltzen dut, baina metafora hutsa da. Euskal Hiria izango litzateke nire lekua? Nik ez dut ezagutuko"

Bernardo Atxaga.

Euskal hiriaren eta literaturaren arteko zubiak eraikitzerakoan metaforak izan dira nagusiki pasabide erabilienak, hiri errealen eta ikusezinen arteko literatura marrak, geografia mapa irudikatuetan ezkutatzen direnak. Metafora eta pentsamendu aniztasunaren isla izan nahi du, adierazi, *Hegats* 37. horrek. Hiriaren gainekko irudiak, gutunak, iradokizunak, ideologiak... jarri ditugu irakurgai, inongo galbahetik pasatu gabe.

Hala nola, Harkaitz Canok, "Literatur bideak" atalean, "Kanpoko hiriaz" izkiriatu duen artikuluan *Basamortua ez dago esplikatzerik* azpi-tituluarekin datorkigu, Wittgenstein-ek azpimarratzen zuen hizkuntzaren balizko ahulezia gogoratuz. Gotzon Garatek, berriz, gutunak idatzi ditu, New York-etik idatzi ere. Hirien paradigma bilakatu den New York horretatik zera dio: "Ez dut uste hiri hau bezalakorik inon dagoenik. Hemen aurki litezke munduko gauzarik txarrenak eta onenak".

"Txosten monografikoa" atalean, Itxaro Bordak idatziriko "Metropolis" artikuluan zera diosku: "Euskaldunak zailtasunak ditu hiriaren zilegitasunaren onartzeko"; balizko zilegitasun horren bila abiatu nahi du *Hegats*ek . Joseba Iriondo kazetariak "Suntsitzen ditugun hiriak" izan ditu hizpide bere izkribuan, Jalalabad-etik (Afganistan)

bidalitako literatur kronikak dira, gudan suertatzen diren mila argazkietatik hiru aukeratu ditu.

Bestalde, *Hegats* honetako elkarrizketara etorrita, Maite Gonzalez Esnalek Asun Sarobe, Donostiako Arkitektura Fakultateko irakaslea, elkarrizketatu du. "Espazioa neurriz eta tentuz taxutzeaz arkitektura arduratzen da" eta horretaz jardun dira solasaldi honetan.

Honez gain, Juan Ramon Makuso filosofo eta poetak "Hiri politikotik hiri poetikora" izenburuko artikulua idatzi du, Aristotelesen "Poetika" abiapuntu izan duelarik, "Kritikabideak" atalean. Atal berean, Urtzi Urrutikoetxeak Bilbo eta gure literaturaren arteko aztarnak arakatu ditu.

Azkenik, ohizkoa dugun modura, literatur iruzkinari eskaini diogu txokoa. Oier Guillanek Urtzi Urrutikoetxearen *Auzoak* liburuaren gaineko iruzkina egin du eta Ixiar Rozasek Italo Calvinoren *Le città invisibili* klasikoa aztertu du; zergatik irakurri klasikoak? idazle italiarraren galdera klasikoaren aztarnari jarraiki nonbait.

Hasier Rekondo.

Literaturbideak

▼

Harkaitz Cano

Gotzon Garate

HARKAITZ CANO

Egunerokoa. *Hirirantz*

Basamortua ez dago esplikatzerik

Borborra mesedegarria da, batez ere, lapiko barruan irakiten ari dena norbera ez denean. Batez ere, norbera sukaldari sentitzen denean –gezurra izan arren–. Gangster japoniarren *yakuza* zinearen ordezkari gorena den Seijun Suzukiren *Hiltzailearen marka* film hartan bezala, ederra da, yakuza bat bere betiko jatetxean eguneko menua eskatu ordez, sukalderaino sartzen ikustea; arroza irakiten ari den ontziari estalkia kendu eta arroz-lurrunarekiko duen adikzioa baretzen du horrela, horixe baita gure *yakuza* honi gogorren jotzen dion adikzioa.

Hiria da lapikoa, gu –nahi bai– gangster japoniarrak.

Zergatik alde egin, eta zergatik hirietara?

Basamortua ez dago esplikatzerik, zeharkatu egin behar da.

Victor Hugori eskainitako *Le cygne* poeman gaztigatzen gintuen jada Baudelairek: "Le vieux Paris n'est plus (la forme d'une ville change plus vite, hélas!) que le coeur d´un mortel". Gil de Biedma poetak maite zituen modernitatearen sortzailearen bertso-lerrook. "Gutako inor ez da jada lehengoa, batzuetan kantu batekin laketzen bagara ere", idatzi zuen berak. Baudelairek esandako gauza berbera finean, beste hitz batzuekin.

Afrikako zenbait tribuk giza gorputzaren irudira eraikitzen dituzte haien kalexkak, etxeak halako moldez jarriz non, populaziogunea kokatzen den asentamendua airetik behatuz gero, giza gorputz bat marrazten duen. Estonagarria behar du ikuspegiak. Baina hiria ere –edozein hiri handi– halakoxea da, gorputzaren itxura ez izanagatik biziduna, belauniko jarri, etzan, altxatu, erori, berriro jaiki eta eraldatu egiten da etengabe. Baina ez bakarrik gizakiaren borondatearen eta bere ekintzen arabera.

Martin Amisi bere horzdura Manhattango zeru-lerroa zela otu zitzaion behin haginlariarenean, anestesiak eragindako haluzinazio une batean, eta baita obsesio neurotiko ezinago eder honi buruzko narrazioa idatzi ere. Bai. Bada zerbait egiazkoa irrazionaltasun horretan. Badaude lekuak eta momentuak, norbera aski iragazkor izan eta nahikoa adi egonez gero, hiria azalaren azpian sartzen zaizuna. Eta horixe da, hain zuzen, hiriaren irudi zintzo bat gordetzeko era bakarra. Norbere irudi zintzo bat gordetzeko era bakarra ere bai. Kanpotiko zerbait edo norbait azalaren pean izatea *(I've got you under my skin,* beste *crooner* handi hark zioen legez). Zaurgarri izatea eta zaurgarri zaren kontzientzia bera, ederra dateke, zergatik ez.

Chambre de bonne, une bonne chambre

Danilo Kis-ek zera dio *La buhardilla* liburuko sarreran: "Gure aurrean, harrizko etxe bat, solairu askotakoa. Orduan eta altuagoak eraikinak, are hotzagoa da bizitza etxe barru horietan. Pobreziak, zoritxarrak, ezjakintasunak, gaixotasunek eta penek gorantz bultzatzen dute gizakia. Behean bizi zelarik, oraindik interesez jarraitzen zuen bizitzaren aniztasuna, parte hartzen zuen aniztasun horretan, nahiz eta, jaiotzatik bertatik, ulertezina eta atzeman ezina suertatzen zitzaion sarri".

Egokitzeko zailtasunak. Nahitako isolamenduaren abantailak. Bizilagunak ez ezagutzea beldurgarri jotzen du hainbatek. Niretzat liberazio bat da.

Pigalle auzoko ganbara batean bizi naiz, baina hirugarren solairu bat baino ez da. *Chambre de bonne.* Neskameak bizi ohi ziren gela paristar tipikoa. *Une chambre de bonne est une bonne chambre,* dio frantsesa ikasteko erabiltzen dudan metodo zaharkituak. Hiru hilabetez hartuko nauen txapitulan maletak utzi ditut. Mahaia ekarri dut arrastaka leiho parera. Liburuak lurrean jarri ditut. Postal pare bat hormetan. Etxean bezala.

Norbera nondik abiatzen den...

Paulino Uzkudunen memoria-liburu bitxia (*Mi vida* izenekoa, 1934an argitara emana) irakurri dut aspaldi ez dela. Panparroikeriaz eta topikoz jositako ale benetan berezia. Apartekoa da liburuari hasiera ematen dion sententzia. Jatorrizko gaztelera goranahi horretan emanda grazia gehiago du, nik uste: "Dicen que nací –yo, naturalmente no puedo afirmarlo ni negarlo– en Régil, la pintoresca aldea guipuzcoana, el 3 de mayo de 1899".

Paraje asko eta ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuen boxeolariak. Hona zer zioen berak ezagututako hiriei buruz, 35 urterekin idatzitako memorietan: "San Sebastián me pareció la población más importante del mundo. La animación de San Sebastián, su tráfico y el ir y venir de las gentes me aturdían. Cuando más tarde visité París, Berlín y Londres y las grandes ciudades de EEUU nunca pude volver a sentir una impresión semejante. (...) Entonces no soñaba siquiera que la ciudad es otra hembra que nos tiende la red traicionera de sus encantos y que el campesino que se deja embaucar por sus cantos de sirena está perdido".

To, prosa poetikoa. Beheraxeago, Berlinen ezagutu zituen lehen trabestiei buruzko bere harridura azaltzen du: "Berlín me causó una gran impresión, pues sin disputa, es una de las ciudades más interesantes del mundo. Pronto pude también notar que todas las modalidades del vicio tienen allí su asiento. Por primera vez en mi vida vi en las calles de Berlín hombres vestidos de mujeres, hecha la transformación con tanto arte, que si no me advierten de lo que se trataba les hubiera echado un piropo".

Kanposantuak, maitaleak

Zergatik paseatu Parisko kanposantuetan? Ze espero dezake oinezkoak Julio Cortázar edo Samuel Becketten hilobiak aurrez aurre

izanda? Maisuen aholkuren bat, hilartitzetan haiek pistaren bat utzi izana? Dado pare bat topatzea lauzaren gainean ohiko loreen ordez, nora zuzendu eta taula gainean zenbat laukitxo aurreratu behar dugun esango diguna? Axola du Saint-Georges eta Notre-Dame de Lorette karrikak gurutzatzen diren puntuan, nire ganbaratik hain gertu, Marguerite Duras bere maitalearekin elkartzea egunero II. Mundu Gerrak irauten zuen bitartean? Saint-Georges eta Notre-Dame de Lorette ertzean egonda izanen dut nik maitalerik zain, inoiz, beharbada?

On fait feu de tout bois

Idaztera etorri naiz baina ez naiz idazten aritu beharko nukeena idazten ari. Aldiz, beste gauza asko idazten ari naiz. Gehienetan gertatzen da horrela, baina badago nolabaiteko frustrazio bat gertaera honetan. Egun askotan zinera joaten naiz, bete gabeko planifikazioek sortu egonezina baretzeko. "Ez diat nahi nuenik idatzi, baina film on bat ikusiko diat bederen Grand Actionen, eta tira, eguna ez zaidak honenbestean alferrik joango" pentsatzen dut, Jussieu geltokian metrotik ateratzen naizelarik. Eguna erredimitzeko era bat da zinea.

Azaroa. Haizea hotza da. Esna eta erne egoteko, niretzat propio jarritako haize hotza dela sentitu dut. Ez da larria. Niaren erreafirmazio hiritar tipikoa.

Ernst Lubitschen atzera-begirakoa eta trenekin zerikusia duten filmei buruzko ziklo bat. Zorteko nabil. Gauean, Gil de Biedmari egindako elkarrizketa liburua hartu dut: "Norbera poema bat idazten dabilenean, etxeko altzariekin egiten du sutarako egurra, eta artean txotxak aldean dakartzan norbait etortzen bazaio etxera, bada, txotxak ere sutara. Frantsesez dioten legez, *on fait feu de tout bois*".

Lagunen bisitak eta diarioak

Roland Jaccarden *Journal d´un oisif* erosi dut unibertsitate inguruko liburudenda batean. Izenburuko protagonista nagi horretaz gain, argazkiak piztu dit arreta: Cartier-Bressonen *momentu erabakigarri* horietako bat da. Bi emakume kafetegi bateko terrazan eserita, mahai paristar ezinago ttipi banatan jarrita. Ile-xerloek aurpegia estaltzen dioten neska gazte bat ageri da minigona zuria jantzita lehen planoan, *Le monde* irakurtzen; eta neskaren diagonalari segituz, hondoraxeago, amona dotore bat *Le Figaro* irakurriz minigona duen neskari halako mesfidantza batez so egiten diona.

Jaccarden ustez, diario bat idaztea "alferkeria okupatzeko era bat" da. Céline ekartzen du berehala gogora: "Funtsezkoa ez da zuzen edo oker gauden –horrek ez du inolako garrantzirik–. Inportantea dena da, munduari gutaz arduratzeko duen gogo guztia kentzea. Gainerakoa, bizioa besterik ez da".

Nihilista hutsa da Jaccard, zalantzaren militante, gizakiok merezi dugun gauza bakarra ahaztura dela dio. Apur bat poseak hartutako idazlea, agian? Stefan Zweig miresten du, adibidez, hil baino ordu pare bat lehenago lagunekin lasai arraio xakean zebilelako. "Ulertu zuen, gizakiak bere buruaz beste egitekotan, argitasun unerik gorenean egin behar duela". Ez da liburuan sorkuntzari buruzko gogoetarik falta: "hamar, hamabost urtez izango zara original. Gero, birziklapena beste aukerarik ez dago. Berdin zure deitura Dickens, Bergman edo Scorsese dela ere".

Egunerokoak, diarioak, konfesio liburuak irakurtzeko gogoa piztu zait. Julio Ramón Ribeyrorekin ere ari naiz. *La tentación del fracaso*. Ederra izenburua. Parisen idatzitakoak dira peruarraren pasarte asko. La Bruyère-en aipu bat dakar: "Ez dago pertsona bat bera ere deus irabazten duenik hura sakonki ezagutzen hasiz gero". Apur bat gehiago zehazten du: erabat ezagutzen ez dituen haiek

omen gehien estimatzen dituen lagunak. "Adiskidetasunak inoiz gainditu beharko ez genukeen muga natural bat dauka: haratago saiatuz gero, kontaktua kolisio bihurtzen da".

Gertuegi dago Paris. Lagunak etortzen zaizkit bisitan. Estimatzen ditut haien bisitak, baina konturatu naiz ez ditudala agian *gehiegiegi* ezagutu nahi.

"Presentziak saturazioa sortzen du, asperkeria, eta batzuetan, antipatia. Askotan erregutu izan dut isilka lagun bat lehenbailehen parti zedin hiritik, bera ez galtzeko. Agian hori da Parisko nire gela inoiz ez konpartitu nahi izanaren arrazoia, horrek dakartzan abantaila ekonomikoak begi bistakoak izan arren".

Independentzia, bakardadea. Ze ezberdintasun dago? Nerau neronen jabe? Nerau neronen neskame, *chambre de bonne* honetan? Ni naizen neskamearen eta ni naizen etxe-jabe burgesaren artean neskamea garaile? Neskame berlindarra, agian? Paulino Uzkudunen neskame berlindar trabestitu paristartua, gaur etxe atarian ikusi dudan horixe, astrakan zurizko beroki zurdatsu, triku zuriak josiz egindako jaka dirudien horren azpian biluzik? Triku zuriaren arantza-puntak kafez zikinduta zituen prostituta berokipean biluzi horren aurpegia eta nirea, ez ote dira biak bat kalean gure begiradak gurutzatu diren unetik aurrera? Hirietako ispilukeriak: trukagarritasunaren ilusioa.

Ribeyrok: "lagunek gure bertute potentzialak gararazten dituzte. Lagunik gabeko pertsona batek bere burua sekula ez ezagutzeko arriskua dauka. Lagun bakoitza, angelu ezberdin batetik erretratatzen gaituen ispilua da. Lagun bakoitzak adiskidetasun mota jakin baten garapenerako eremu bat sorrarazten du gugan. Horregatik da posible hain zuzen, elkarrekin sekula ongi moldatuko ez liratekeen bi pertsona gure lagun min izatea. Lagun bat galtzea, batzuetan, gure nortasunaren eremu bat deuseztea da".

Depresio une laburra. Promena gaitezen, Parisen gaude eta! Notre-Dame de Lorettetik Les Halles-eraino oinez, Saint-Eustache

elizako atarian dagoen eskulturaraino. Gustuko dut lurrean paratutako harrizko buru handi hori, ez dakit zergatik.

Kantu bat, ajea

"Gutako inor ez da jada lehengoa, batzuetan kantu batekin laketzen bagara ere".

Ez. Ez gara lehengoak. Baina badira kantuak pertsekutatzen gaituztenak. Bestondoak bezala jazartzen gaituztenak. Hitz baten ezkutuko maratila deskubritu dut Ribeyroren egunerokoan: "¡Qué terrible es la soledad después de una borrachera! Algún día examinaré con calma el aspecto moral de la resaca o *perseguidora*". Ajeari *perseguidora* esaten diotela beraz, Hego Ameriketako zenbait lekutan. Eta bat-batean, Cortázarren *El perseguidor* ipuinak ere beste esanahi bat hartu du. Berrirakurri behar dut, ahal dudanean, euskarara itzuliz gero *Jazzarlea* behar lukeen ipuin hori.

Kantuei buruz ari nintzen, ordea. Zenbait kantuk aise lortzen dute edonon etxean bezala senti gaitezen. Horixe gertatu zitzaidan duela zenbait aste, Parisera heldu berritan. Kontzertu batera eraman ninduen V-k, New Morning aretora. Bugge Westeltoft eta Sidsel Endresenen kontzertu batera. Aparteko emanaldia, inondik ere. Westeltoftek apenas erabili zuen ohikoak dituen errekurtso elektronikoetarik batere: pianoa bakarrik, lantzean behin teklei muzin egin eta zuzenean pianoaren tripetako soka eta mailutxoak kolpatuz. Niretzat ezezaguna zen Sidsel Endresen kantariak berriz –eskandinaviarrak dira biak–, nahieran landu zuen bere ahotsa, merkurioaren eran, buztin moldagarriaren gisan: Mikel Laboaren *Lekeitioak*, baina bertsio finlandiar emean, adierazi ezin dena nolabait adieraztearren. Esperimentala zen emanaldia, bai. Baina, tarteka, kantu "arruntagoak" ere jotzen zituzten, balada triste eta ederrak. Eta hara non, erabat ustekabean, Paul Simonen nire kuttunari ekiten dion Westeltoftek pianoare-

kin. *Fifty ways to leave your lover*, noizean behin laketzen nauen kantu horietako bat.

Paul Simonen bertsioa hobetu egin zuen gau hartako bikoteak: Simonek, tristea den kantuari –maitaleak uzteko erei buruz ari gara– bira alaia ematen dio jatorrizkoan, eta une horretatik aurrerako baikortasuna gogaikarri suertatu izan zait beti tonu tristean jarraitzea eskatzen duen kantuan. Endresen-Westeltoft bikoteak ondo eusten dio bere deprimentean hain zuzpergarria den tonuari. Hobetu egiten du Simonen kantua.

Eta ez dago gustuko duzun musikari bat, erabat ustekabean, gustuko duzun beste musikari baten bertsioa jo eta jatorrizkoa hobetzen ikustea bezalakorik. Ez galdetu zergatik, baina efektua biderkatu egiten da hori hiri arrotz batean gertatzen denean, konpainia onak eta kasualitateak eraman zaituen klub batean. Hori da apika idazle guztien amets ezkutu eta konfesaezina, besteen istorioak buruan, nor berea idazten hasten denean: Paul Simonen kantua hobetzea, norbere bakardade eskandinaviar besterenezina baliatuz.

S-ren bisita

Monparnasseko geltokian zain.

Geltokiko pantailetako ordutegiak argiak dira, baina megafonia kaxkarra. Pazientzia galtzen hasi naiz. Buru-oharra: *Tren-geltokietako megafonia hobetzen den egunean* izenburu polita dateke ipuin batentzat.

Jendea maletak arrastaka daramatzala. Trena luzea da. Ez dut oraindik bera ikusten. Bereizi dut azkenik jendetzaren artean, maleta arrastaka dakarrela bera ere. Estropezu egin du ni ikusi bezain pronto, eta irribarre. Ilea luzeegi daukadala esan dit bere begiradak.

Pigalleko ganbara D-ko nire etxearen antzekoa dela esan dit. Max Beckmanen esposizioa ikusi dugu arratsaldean, pozik, gehiegi hitz egin gabe.

Grand Actionen izan gara, Suzukiren *Tokyoko eskalea* ikusten. "Eskale batek ezin du munduan barrena emakume batekin ibili. Bakarrik joan behar du". Trenak kea botatzen du, elurtuta dago paisajea. Txistu egiten du tarteka eskaleak. "Gaurko filmetan gutxi txistu egiten dute", esan dit S-k. Tetsu gure pertsonaiak etengabe txistukatzen du pelikula guztian. Lurrean etzanda dagoela, arerioek hilda dagoela uste dutenean ere, txistu egiten du, Sergio Leoneren filmetako cowboy baten eran.

Maite dugu Tetsu.

Bisitak alde egin du

Hutsuneak estazio barruko nasetan hegoak astintzen dabiltzan uso zatarren zalapartan egin du oihartzun. Metroan bakarrik, nire ganbarara bueltan.

Une chambre de bonne est une bonne chambre.

Ez dakit ba nik.

Satoria Parisen

Jack Kerouacen liburu bat igorri didate postaz, *Satori in Paris.* "Satoriarekin kontuz ibiltzeko" gomendatzen didate liburuaren eskaintzan. Kerouacen ibilera paristarrak irakurri ditut liburuan, *nirvana* ero izpiritual bat, trantze antzekoa da, nonbait, *satori* egoera hori. Pasarte deigarri bat, bat-batean, paristarrek turista galduei argibideak emateko duten zaletasun ezari buruzkoa: "Ez sinestekoa da. Demagun Senegalgo Aita Kane bezalako turista bat hurbiltzen zaidala 6. abenidaren eta 34. kalearen bueltan eta Times Square-eko Dixie Hotelera joateko modurik errazena galdetzen didala. Eta nik, Boweryra bidaltzen dut, nora eta (kasu baterako) lapur euskaldun edo indiar batzuek akabatuko duten lekura...".

Jack Kerouac *dixit*.

Izzo irakurriz Rodinen etxera

Jean-Claude Izzo da aspaldi honetan irakurri dudan eleberri poliziako idazle txukunena. *Solea* liburuarekin ari naiz orain, bere trilogia marseillarreko azkena berau. Azpimarra bat gizakiak elkar ulertzeko zailtasunei buruz: "Ez zuk eta ez nik ezin dugu elkarren buru barruan bizi. Eta horrek beldur handia ematen du, ezta?". Marseilla ezagutzeko gogoa piztu dit Izzoren liburuak.

Varenne geltokian atera naiz metrotik. Rodin museoa, txikia eta nazkatu gabe ikusteko modukoa dela esan didate. Eta ez nau dezepzionatu. Pentsalari ezagunaz gain, badira lan politak: lotan dagoen emakume baten burua gustatu zait batez ere, Saint-Eustache eliza parean dagoen buru handia gogora ekarri didalako, agian. Buztinez egina dirudi, bukatu gabeko molde bat ematen du. Baina errealismo handikoa da benetan. Ez dago jende gehiegirik museoan. Erakusketako zaindaria aspertuta dabil. Oso pertsonaia literarioak iruditu izan zaizkit beti museoetako zaindariak, ez dakit zergatik. Bat-batean, estanpa pentsaezina eskaini dit, Cartier-Bressonek ere inbidiaz hartuko lukeena: leihotik begira jarri da zaindaria, eskua kokotsean duela, pentsalaria imitatuz. Zaindari despistatuak, pentsalaria dagoen gela zaindu beharraren zaindu beharraz, eskulturaren postura bera hartu du, kutsatu egin dio irudi bizigabeak bere jarrera gizon bizidunari. Argazki kamara zorrotik atera dut, momentua betikotzeko asmoz. Kamera ateratzerako, ordea, ondoko salara alde egin du ostera zaindari-pentsalariak. Domaia da. *Momentu erabakigarriari* ihes egiten utzi diot. Ezin nire buruari barkatu. Baina ez dut etsi. Zaindaria bueltaka-bueltaka dabil, lepoa egingo nuke laster berriro ere leihoaren parera etorri eta jarrera inkontziente berbera hartuko duela, eskua kokotsean jarrita, leihotik begira.

Hogei minuturen buruan, nire teoria baieztatzera etorri da gizona: oraingoan bai, harrapatu dut. Euforiaren menpe atera naiz museo-

tik, kamera eskuan, altxor bat banerama bezala. Hatzak gurutzatu ditut argazkia ondo atera dadin, apenas izan dudan enfokatzeko astirik.

Profesionalak metroan

Errumaniarrak diruditen arren, kantu amerikarrak jotzen dituzte. *Oh when the saints go marchin´in* eta gisakoak, bagoiz bagoi, egun osoan. Baina onena da, bagoi berri batera sartu eta hau hutsik topatzen dutenean ere berdin jokatzen dutela. *Oh when the saints go marchin´in* jotzen dute orduan ere, bagoi hutsean inor ez egonagatik.

Profesionalak dira, baina ez dute diruagatik bakarrik jotzen.

Pigalle

Poema ederra eskaini zion Jon Mirandek bizi naizen auzoari:

> *Zohardi zan,*
> *Pigalle-zeruan izarrak*
> *piztu ziran*
> *–puten sabelean arno beltza botz-kantuz...*

Pigalleko zenbait kaletan, gurutzegrama gisako erakusleiho diskretuak dituzte putetxeek: kristal karratuz egindakoak. Propio belztuak daude kristaleko zenbait lauki, belztu gabeak beste batzuk. Horrela, leiho hauetatik, espaloian zehar dabilenaren atentzioari deitzeko, zango luze bat agertzen da belztu gabeko ajedrez lauki horietako batean, lepo kilikagarri bat goraxeago, lepauztai plako zuria erdizka beherago, emakume ile-horiaren xerlo batzuk ere ikusten dira han-hemenka. Prostitutek jai duten egunetan, xerlo horail luzeen ordez, lorontzi bat jartzen dute, gari sorta batekin.

Eta guri bost axola: gauza bera da gari sorta eta xerlo horaila, baldin eta miopea bazara eta kontrako espaloitik pasatzen bazara oinez.

Hiri handian, sekula gure egingo ez ditugun gauzen eskaintzak berak asetzen gaitu. Egunen batean –inolako ahalegin berezirik egin gabe– gure izena gurutzegramaren parte izan daitekeela jakite hutsak. Nahikoa da xake taula hor egotea, gurutzegrama hor egotea.

Gogoratu Stefan Zweig. Gogoratu suizidatu baino ordu pare bat lehenago xakean zebilela lagunekin.

Gauza inportanteak egiteko adina

Le Monde-en irakurria: "40 urteak paseak ditugunean, dio Michka Assayasek, orduan dugu benaz zerbait garrantzitsua egiteko aukera: gaixotasun larri bat harrapatzekoa kasu, edota... nobela bat idaztekoa, bestela."

Hemendik bederatzi egunera Euskal Herrian izango naiz berriz. Badakit *chambre de bonne* hau ments izango dudala hara itzulitakoan. Ments dut jada. Hirugarren pertsona orojakilearen nostalgia aurreratu gorrotagarri hau. Azken egunen zaborra.

Abenduak 30

Gaueko trena. Egunsentian Irunen utziko nauen *Palombe Bleue*, betikoa. Hotzetik ihesi, nasa inguruan inoiz baino uso zikin gehiago trenen epelera bilduak.

Basamortua ez da esplikatzen, basamortua idatzi egin behar da, pentsatzen dut. Morroi gazte gihartsu batek orga handi bat darama trenerantz tirriki-tarraka: izara garbiz, SNCFko logoa marraztuta duten mantaz eta plastiko poltsetan bildutako burkoz beteta dago orga.

Euren gelaxkan egongo dira megafoniako langile loguretuak, lankideek bagoietako gure oheak atondu zain, trenera igo gaitezen abisua emateko.

Ez dugu entzungo abisu hori, eskasa baita, eskasa, estazioetako megafonia.

(Paris, 2002ko urria-abendua)

GOTZON GARATE

Egunerokoa. *New Yorketik eskutitzak*

Miren Iruarrizagari

Bilbon 2004-VI-23
New Yorketik

Izeba maite hori:

Joan zen astean etorri nintzen atzera ere New Yorkera. Pozik nago. Ez dut uste hiri hau bezalakorik inon dagoenik. Hemen aurki litezke munduko gauzarik txarrenak eta onenak.

Museo bikainak dituzu hemen, Metropolitan eta Modern museoa, adibidez, eta zinemak, musikalak, parkeak, jolastokiak, saltokiak... Ekonomian New York da munduko zilborra. Eta pentsa, modan ere azken urteotan hiri honek kendu dio Parisi lehenengo tokia.

Niretzat lekurik maitagarrienak liburu dendak dira. Hemen liburu merkeak eta onak ediren litezke. Europan gertatzen ez dena, Estatu Batuetan liburu bat argitaratu eta bizpahiru urte igaroz gero, merke aldira joaten da.

Liburu denda famatuena Barnes & Nobel duzu. New Yorkeko bazter askotara hedatu da, baina batez ere Bosgarren Etorbidean eta 15 kalean dagoena duzu entzutetsuena. Baditu apalategietan 20 kilometro. Sinesten al duzu?

Hemen egun guztiak dira kilikagarriak. Non edo han gauza berriren bat ikusiko duzu.

Utzi egin behar zaitut, izeba, emakume bat aholku eske etorri zaigu Counseling Center-era eta ez diot itxoin arazi nahi.

Besarkada handia zuretzat, osabarentzat eta Mikel eta Edurnerentzat.

Zure iloba

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VI-30*

Izeba maite hori:

Gaur goizeko zazpiak irian, ohetik jaiki berria nintzela, pap-pap-pap soinuak belarrietan dardara egin dit. Hots lehorra eta minbera, zorrotza. Badakit nik aspalditik nondik heldu den hots hori. Pistolaren ahotik.

Berehala jaitsi naiz kalera. Gure etxe ondoan, 50 metrora, bebarru baten jendea bilduta zegoen eta emakume bat intzirika.

Hurbildu naiz. Lurrean etzanda 35 bat urteko gizasemea etzanda zegoen, hilik, odol nasa baten.

Gorpuari begira Christopher Clinton zegoen, aspalditik ongi ezagutzen dudan gaztea. Mesedetxo batzuk egin izan dizkiot aurreko urteetan. Garai batez poliziarekin istiluak izan zituen, lapurreta batzuk egin zituela eta. Ni beraren alde atera nintzen, adiskide ditudan polizia batzuekin solastatu nintzen eta zigor txikiagoa eman zioten.

Christopherrek esan didanez, hilketa hau droga saltzaileen arteko kontua izan da. Droga inguruan dabiltzanek beren istiluak eta auziak pistolaz garbitzen dituzte. Oraingoan ere kontu bera.

Badakizu, izeba, ni Manhattanen, Washington Heights-en auzoan bizi naizela. Orain urte batzuk irakurri nuen hemengo Daily News-en, halaberean gure auzo honetan gertatzen zirela hilketarik gehienak, munduan beste inon baino gehiago.

Gu Wahsington Bridge famatuaren ondoan bizi gara, 175. kalean. Zubi hori da New York New Jerseyko kasinoei (hortxe duzu Athlantic City ospetsua) lotzen diena. Kasino horietarik jende asko etortzen da gure auzora droga erostera, merkeago delako.

Azken hiru urteotan droga gutxitu egin da, Juliani alkateak aginduta, polizia ugaldu egin delako. Halere, oraindik hemen bizi garenok badakigu zein tokitan saltzen den droga eta nor dabiltzan lan horretan.

Poliziaren lehenengo urratsa, harrapatuz gero, droga erosten ari denari autoa kentzea da. Eta diru zigorra leporatu. New Jerseytik etorri bada,

autobusez edo taxia hartuta itzuli beharko da, autoa polizien eskuetan utzita.

Nik zurekin lehenago ere honetaz hitz egin izan dut. Nire ustez droga libre utzi beharko lukete. Debekatua dagoelako, oso garesti da eta saltzen dirutza handiak irabazten dira. Irabazi horien inguruan mafia indartsuak daude.

Libre utziz gero, mafiak galduko lirateke. Libre izatearen kontra daudenek, droga, libre utziz gero, ugaldu egingo litzatekeela esaten dute.

Horixe esaten zuten Ipar Ameriketan Prohibition denboran. Alkohola debekatu eta ez zuten deus iritsi. Ustelkeria eta Al Capone bezalako kriminalak sortarazi bai.

Ez dago frogaturik droga libre utziz gero, drogazaleak orain baino gehiago izango liratekeenik.

Agur, izeba, eta besarkada handia etxeko guztioi.

Zure iloba

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VII-8*

Izeba maite hori:

Gaur, hemen egun berezia dugu, Uztailaren laua, Independentziaren egunа. 1783an amerikarrek kendu egin zuten lepotik ingelesen uztarria eta beren buruen jabe bihurtu ziren.

Hemen jai giroa da alderdi guztietan. Desfileak, kantuak, oihuak eta batez ere petardoak. Gaur kaleetan kontuz ibili beharra dago. Haurrei jendea izutzea gustatzen zaie. Hanketara edo hanka ondora botako dizkizue petardoak, ohartu baino lehen. Bihar irakurri egingo duzu halako eta halako tokitan gaztetxoek behatzen bat edo begiren bat galdu dutela.

Nik egungo egunean, bazter guztietan ageri den alaitasuna ikusita, urtero-urtero gogoeta egiten dut, noiz ospatuko ote dugun geuk ere geure he-

rriaren askatasuna. Gauza bat dago argi. Amerikarrek borrokan egin behar izan zuten askatasuna lortzeko.

Ez dago ia herririk beste herri baten azpian egon ez denik. Eta libre izateko, nola edo hala lan gogorra egin behar izan dute guztiek: Europan, Ameriketan eta Asian.

Hori bai, ez mintzatu amerikarrei Euskal Herriaren independentziaz. Beraiek izan zuten gerla zibilarekin traumatizatuak daude. Separatismo hitzak ikara ematen die.

Beraz, beste era batera mintzatu behar zaie. Oroitzen al zara bi fraideen kontu hartaz?

Bi fraide ziren komentu batean, biak erretzaile amorratuak. Biak joan omen ziren Aita Santuarengana, erretze kontu hori zela eta.

Batak esan zion:

- Aita Santu agurgarri horri zer iruditzen zaio, otoitz egitean erre al liteke?

Aita Santuak bekoki ilun erantzun omen zion:

- Seme, seme! Otoitza Jainkoarekin hitz egitea da. Jainkoaren aurrean erretzea errespetu falta handia da.

Beste fraideak, berriz, honelaxe galdetu zion:

- Aita Santu agurgarri hori, zigarroa erretzerakoan otoitz egin al liteke?

Aita Santuak kopeta argiz erantzun omen zion:

- Bai, seme maite hori. Otoitz egin ezazu erretzean. Horrela zure zigarroen kea intsentsua bezala igoko da Jaunaren aitzinean.

Nik amerikarrei, Euskal Herriaz mintzatzean, hauxe esaten diet:

- Adiskideok, guk euskaldunok zuek bezala batasuna nahi dugu. Iparraldeko hiru probintziak eta Hegoaldeko lauak batu. Separatismoa behera!

Eta amerikarrak nire alde jartzen dira, poz-pozik.

Gauza bera esaten nien alemaniarrei Alemanian ikasten egon nintzenean eta nazioa bi zatitan banandua zutenean.

- Zuek bi Alemaniak batu nahi dituzuen bezala, guk euskaldunok bi Euskal Herriak.

Atseginez entzuten zidaten.
Besarkada bat guztioi.
Zure iloba

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VII-15*

Izeba maite hori:

Esan nizun New York filmak eta teatro lanak ikusteko toki paregabea dela. Broadway kalea bezalakorik ez da mundu guztian. Hortxe ematen dituzte film berriak, hortxe aurkituko dituzu "musical"ik zoragarrienak.

Atzo The Phantom of the Opera ikusten egon nintzen, 247 West eta 44 kalean dagoen Majestic Theater-en. Sarrerak ez dira merkeak, baina batzuk besteak baino merkeagoak. Merkeenak 20 dolar eta garestienak 100.

Ni 100eko batekin sartu nintzen. Edo sartu ginen, hobeki esanda; sarrera ordaindu zidan emakume alargun aberats okitu bat eta biok. Aspalditik adiskidetu ginen eta bazkaltzera eta ikuskizun batzuk ikustera eramaten nau. Nik bestela ez nuke inola ere 100 dolar ordainduko, musikal polita izanik ere. Orkestraren ondo-ondoan geunden, musikariak jotzen ikusten genituela.

Badakizu The Phantom of the Opera Gaston Leroux-en eleberrian oinarritua dela. Istorioa oso ezaguna da. Parisko operan fantasma bat, hots, gizon baztertu bat bizi da, bertako arduradunak, artistak eta langileak izutuak dituena.

Operan kantatzen duen Christine neskatxarekin maite zoratu da. Azkenean neskatxaren maitasuna lortu ezin duela ikusi eta baketan utziko du, betiko ezkutatzen delarik.

Benetan musikal zoragarria izan da. Iaz, emakume horrek berak pagaturik, "Nine" ikusi nuen. Antonio Banderas-ek kantatzen zuen eta ez gaizki.

Ez dago ordea Nine eta The Phantom of the Opera alderatzerik, ez eta hurrik emanik ere.

Istorioa bera, kantariak eta eszenografia hobeak ziren alde handiz "The Phantom"en. Musika Andrew Lloyd Webber-ek asmatua da. Horretxek sortu zuen Cats musikalaren musika ere.

Phantom-en lana Hugh Panarok egiten zuen. Bai ongi kantatu!

Eta Christine, berriz, Sandra Joseph zen. Biak musikaletan txit ezagunak. Banderasek ongi kantatzen du baina Panaroren aldean txepela da.

Broadwayko historian Cats ondoren The Phantom of the Opera duzu aldi luzeena iraun eta arrakastarik handiena izan duen musikala. Ia 7000 emanaldi izan ditu eta 17 urtez iraun du. Cats itxi dute eta The Phantom aurrera doa, gelditu gabe.

New Yorken bakarrik 550 milioi $ bildu ditu eta mundu guztian 3,2 bilioi. 10 milioi ikuslek ikusi dute The Phantom.

Ikustaldia bukatu eta emazteki horrek eta biok hungariar jatetxe batean afaldu genuen.

Ikusten duzun bezala, izeba maite horrek, lan egin ez ezik, denboraz goxatzen badakigu hemen New Yorken.

Besarkada handia zuretzat, izebarentzat eta Mikel eta Edurnerentzat.

Aitor

Miren Iruarrizaga *Billbon 2004-VII-22*

Izeba maite hori:

Benetan, hemen New Yorken gertatzen diren gauzak sinesteak lanak ditu. Gertaera harrigarriak, arraiopola!

Pentsa ezazu, izeba. Gaurko Daily News kazetan irakurtzen dudanez, atzo, asteartean 37 urteko Brian Florence eta 35 urteko Loretta Lynn atxilotuak izan dira. Zergatik, izeba?

New Yorkeko Saint Patrick katedralaren barruan, sexu harremanetan ari zirelako. Ondoan zeuden 20ren bat lagunek ikusi zuten bikotea lanean.

Guztia New Yorkeko irrati batek antolatu zuen, "Broadcast live" (zuzenean ematen den) programa baten.

Programaren antolatzaileek puntuak ematen dituzte, sexua tokirik arriskuenetan egiten dutenentzat. Zenbat eta tokia arriskutsuago, puntu gehiago eskuratzen dituzte eta horren arabera da saria ere.

Elizan sexua eginez gero, 25 puntu eskuratzen zituzten, Rockefeller Center-en 30, poliziaren edo suhiltzaileen helikoptero batean 100, Yankee Stadiumen 40, Madison Square Gardenen 15.

Beraz, gure bikotea, 25 puntu eskuratu nahi eta Saint Patrick katedralera joan zen, Axularrek esango lukeen bezala, "beren jokoa jokatzera".

Paul Mercurio, irratiko langilea Saint Patricken ondo-ondotik bikotearen lana irratirako berri ematen ari zena ere atxilotu egin zuten.

Auzitara eramango dute protagonistok. Eta irratia ere ixteko arriskutan dago, jende asko oso haserretu baita gertatuaren berri izan duenean.

Goraintzi guztioi.

Zure iloba

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VII-29*

Izeba maite hori:

Badakizu hemen New Yorken nire zeregin nagusia zein den, Manhattango "Counseling Center" baten lan egitea. Jende asko dator gure laguntzaren bila. Ez diegu ezertxo ere kobratzen.

Batzuk isilean sartu dira Estatu Batuetan eta ez dute hemen gelditzeko legezko paperik.

Baditugu abokatu batzuk istilu hauetan adituak eta horiengana bidaltzen ditugu. Gehienak, ordea, familiako gorabeherekin datoz, eta beste asko problema psikologikoekin.

Gaur, goiz eta arratsalde 44 urteko emakume batekin egon naiz, luzaro mintzatzen.

Emakume honek izugarrizko ukaldia ukan du gaur. Ezkondua da eta bi alaba ditu, 23 eta 21 urtekoak. Gaur ustekabean jakin du bere gizonak Bronxen beste emakume bat duela eta bi haur.

Gizonarekin hitz egin du eta gizonak beste emakumea uzteko indarrik ez duela esan dio.

Gizonak sekula ez omen zuen etxetik kanpora lo egiten. Gizon langilea eta jatorra omen da.

Emakumeak ez die alabei ezertxo ere esan nahi. Zaharrena oso minbera omen da eta etsipenak oso erraz jotzen duena. Unibertsitatean azken urtea egin behar du eta aitaren berria jakinez gero, jota geldituko omen litzateke, ikasteko gai ez dela.

Gaztea, berriz, oso oldarkorra omen da. Behin baino gehiagotan esan omen dio amari: "Aita beste emakume batekin dabilela jakingo banu, akabatu egingo nuke".

Ahaideei esatea ez zaio ongi iruditzen, ez sufriarazteko. Beraz, inongo laguntzarik gabe dago.

Diru aldetik ongi omen daude. Negoziotxoak omen dituzte eta etxea ere berea omen dute.

Neure denboran bakan ikusi dut pertsona bat horren saminki negar egiten. Ito beharrean, zotinka, herioak jota balego bezala.

Bihotza altxatzen saiatu naiz
Goraintzi eta eskumuinak guztioi.

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VIII-5*

Izeba maite hori:

Gaur izualdi ederra izan dut. Kontatuko dizut.

Bada lau urte berrogei urte inguruko emakume bat etortzen zaidala "Councelling Center"ra. Monica Spencer du izena. Emakume polita. Bi alabatxo ditu 15 eta 10 urtekoak. Aingerutxo ederrak dira, sudurtxo irten eta begi argi-urdinekin.

Pentsa ezazu: emakume honek uste du deabrua duela.

Orain lau urte lehendabiziko aldiz etorri zenean, Eggers Russel nire laguna zegoen "on duty", hots guardian, jendea hartzen.

Hizketan hasi baiko, emakumea deabruak hartuta bezala jarri zen, lurrean iraulka; gero zutitu eta mehatxuka hasi zen, atzaparrez eraso egin behar balio bezala. Aholkulari hori ni baino gazteagoa da eta erabat beldurtu zen. Utzi emakumea eta niregana etorri zen.

- Aitor, hor emakume ero bat dago, mehatxuka.

Ez naiz ausartzen berarekin hitz egiten. Joango al zara berarengana?

Baietz esan nion. Joan nintzen eta berriz ere lurrean iraulka zebilen. Gelditu zenean goxo-goxo hitz egin nion. Eskutik heldu nion esertzen laguntzeko baina oso haserretu zen. Ez zuen nahi inork ere ukitzerik. Gero ere postura horretan jarraitu du. Inork ukitzea ez du laket, ez eta atzapar punta ere.

Eseri zen azkenean eta ahal nuen eztienik mintzatu nintzaion. Mintzaldia bukatu eta niretzat gauza bat zegoen garbi. Emakume hark ez zuela inongo deabrurik; psikologia urratua bai.

Hurrengo egunetan, uda bukatu arte, ahal zuenean beti etortzen zen nirekin hitz egitera. Adiskide onak egin ginen.

Bilbora itzuli eta sarritan idazten zidan. Bai eta telefonoz deitu eta dirua igorri ere, esker onez.

Berriz uda etorri eta etengabe etortzen zen Counselling Center-era, nirekin solastatzera. Urte osoan nire zain egoten dela esaten dit. Psikiatrak eta,

berarekin aspertuta daudela iruditzen zait. Eta, jakina, bera ere psikiatrekin, diru piloa kentzen baitiote.

Nik entzun egiten diot. Beti esan izan dut, pertsona guztiekin eta batez ere zoroekin bi alderdiz hitz egin behar dela: maitasunez eta errespetuz.

Aurreko urteetan lasai zebilen eta nik inongo beldurrik gabe izaten nituen hitz aspertuak berarekin. Bada, aurten, lehengo ikustaldian, ustekabekoa gertatu zait.

Berbetan ari nintzen, aholku batzuk ematen, lasai-lasai. Itxuraz bera ere lasai zegoen baina halako baten hartu du bere moltsa eta indar guztiez aurpegira jaurti dit. Zorionez ez nau jo.

Zinez, kikilduta gelditu naiz aurreneko unean. Gero berriz ere arnasa hartu dut eta hizketan jarraitu dugu.

Hurrengo ikustaldietan beragandik pixka bat urrutiago jarriko naiz, berriz ere zerbait jaurtitzeko burutazioa etortzen bazaio ere.

Musu bat, izeba.

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VIII-12*

Izeba maite hori:

Zeure eskutitzetan, kontatzen dizkizudan kasuak atseginez irakurtzen dituzula esaten baitidazu, honatx egun izan dudan beste bat.

Neskatxa gazte bat etorri zait, Mayelin. Dominikar Errepublikan jaioa. Itxura oneko neskatxa, beltzarana, azal eztizkoa.

Hamazazpi urterekin Fernando deritzan mutil batekin adiskidetu zen. Bi urte geroago, Fernandori ezertxo esan gabe, neskatxa honek alde egin zuen beste herri batera. Sendagile egin zen.

Gero New Yorkera etorri, gizon batekin ezkondu zen eta sei urtez elkarrekin bizi ziren. Azkenean banandu.

Medizinako ikastaro batzuk egiten ari zela hiri honetako Columbia unibertsitatean, hara non ikusten duen aspaldiko Fernando. Hain zuzen ere ikastaro haietan irakasle zen. Fernandok ez zekien Mayelinek zergatik zapuztu zuen. Oraingo honetan berarekin pozik ezkonduko zela esan zion mutilak.

Fernandok Athlantic Cityn beste ikastaro batzuk eman behar zituen. Mayelin hara joan zen eta hotelean harreman sexualak izan zituzten. Mayelin ziur zegoen, bere obulazioaren arabera ez zela haurdun gelditukо.

Haurdun gelditu zen, ordea. Fernandok hori jakin zuzenean ez zuen neskatxa berriz ikusi nahi. Ukatu egin zuen bere haurra zenik. Hauxe ere esan zion: Harreman sexualak izan zituztenean berak ez zuela hazirik isuri. Beste batena izango zela haur hura.

Neskatxa jota zegoen, etsita, nora ezean.

Besarkada estua, izeba.

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VIII-20*

Izeba maite hori:

Urteotan New Yorken adiskide minak egin izan ditut. Garai baten neska bat atezain izan genuen "Counseling Center" honetan. Aita amerikarra zuen eta ama latinoa. Berak, dena dela, aitaren aldera eman zuen: oso zen bilo hori, azal txuri eta begi urdin. Neskatxa polita zinez eta zoragarri kantatzen zuena. Bere etorkizuna kantatzen ikusten zuen. Oso buruargi zen, bestaldetik.

Hementxe dituzu berak idatzitako bi eskutitz. Ingelesez daude. Euskaratu egin ditut.

"200... apirilaren 26

Aitor adiskide maite hori:

Aupa! Nola zaude? Izugarri sumatzen dut zure falta. Udan ikusiko zaitudala itxaro dut.

Nola da eguraldia zuenean? Hemen azken aldi honetan ona. Behin izan genuen elurra eta hurrengo egunean 70 gradu.

Une honetan lur jota nabil. Tommyrekin maitemindu naizela uste dut. Berarekin zinez zoriontsu naiz. Ez nuke nahi bera beste inorekin maitemintzea. Azken aldi honetan Tommy oso adiskidetsu eta sentibera izan da nirekin.

Eta orain esango dizudana inork ez daki.

Tommy eta biok elkarrekin oheratu ginen. Zoragarria izan zen. Neure burua lasai sumatu nuen berarekin. Champagne edan genuen, bazkaria izan genuen eta musika goxoa entzun genuen. Benetan ederra izan zen. Ez estutu, ez naiz haurdun geldituko. Biok arduraz ibili ginen.

Geroztik berari oso lotua gelditu naiz.

Hauxe da problema, ordea. Ez dakit berak nitaz zer sentitzen duen. Egun hartatik aurrera nirekin are goxoago izan da. Nik uste dut maite nauela. Ez diot, baina, galdetzen. Ez nituzke geure harremanak hala-holako galderekin mingostu nahi.

Familia izateari buruz: Ez dut uste ezkontzerik nahi dudanik. Ez dut uste bizitza guztirako pertsona bati lotuta egoteko gauza naizenik. Haurrik ere ez dut nahi. Beharbada haur bat, gehiago ez. Karrera egin behar dut. Eta bestaldetik, kantari izatea ez da familia bat edo haurrak edukitzearekin ongi uztartzen.

Gurean gauzak ongi doaz baina Marisolekin (ahizpa gaztea) istiluak izan ditugu. Oso lotsagabe bihurtzen ari da. Edozein gauzagatik gogaitzen da eta edonori zapuzkeriaz erantzuten dio. Iguingarri egiten ari da. Soda etengabe edan bai, baina ez du gozokirik baizik jaten, eta moltsetan saltzen diren patatak. Behartu egin behar dugu jan dezan.

Azken aldian kantaldi asko izan dut. Oso onak izan dira. Hurrengo kantaldia datorren asteazkenean izango da City College-n.

Ekainean ukanen dut graduazioa. Avery Fisher Hallean izango da. Benetan niretzat poz handia izango litzateke zu han bazina. Brooklyn Unibertsitatean onartu naute. Unibertsitate hori nahi nuen nik. Lau urte unibertsitate horretan eman ondoren, beste lau urterako Harvardera joan nahi nuke. Ikastetxe hori oso gogarakoa dut.

Graduaziorako problema bat dut. Gure amak ni David neure lagunarekin joatea nahi luke. Nik, ordea, ez dut Davidekin joan nahi. Ez dut maite. Tommyrekin joan nahi nuke. Zer esango ote diodan amari? Badirudi gaitzetsi egiten dituela nik maite ditudan gauza guztiak.

Psikismo aldetik ondo nabil. Ez diot neure buruari lehen hainbeste gorrotorik. Aldarte hobean egoten naiz. Baina neure burua horren galdua ikusten dut Tommy dela eta. Jaungoiko maitea, zer egin behar dut?

Laster erantzungo didazula itxaro dut. Oroitu zure laguntza behar dudala. Berandu gabe zu ikusiko zaitudala pentsatzeak poza ematen dit. Nire konfidentea zara!

Love Laura"

Izeba, zer iruditzen zaizu?

Agur.

Aitor

Miren Iruarrizagari *Bilbon 2004-VIII-30*

Izeba maite hori:

Hementxe duzu Lauraren hurrengo eskutitza, neska horretaz gehiago jakin nahi duzula esaten baitidazu.

"Adiskide maite hori:

Zer moduz zaude? Ni ongi nabil.

Zer nolako eguraldia duzue hor? Hemen oso beroa eta euria dugu.

Zure falta handia dut. Hemen gauzak oso poliki eta aspergarri doaz.

Etorriko al zara ekainaren azken aldian? Esan nizun nire graduazioa ekainaren 27an izango dela. Zu etortzea nahi nuke. Niretzat gauza handia litzateke nire adiskiderik maiteena hemen egotea.

Marisolek lehengo lepotik du burua. Baina, tira, nahiko ongi konpontzen gara.

Azken notak oso onak izan ditut. Denak 90 eta 80. Oso zintzo ikasten ari naiz. Nota onekin graduatu nahi dut.

Azken aldi honetan ez dut Tommy ulertzen. Une batez oso goxo izan liteke eta hurrengoan badirudi beste mundu baten dagoela.

Ekainaren 18an Marisolek Ballet baten lan egingo du. Sagua izango da. Bai bikain dantzatzen duela! Eskutitz honetan argazki batzuk sartzen dizkizut, amarena, Marisolena eta neurea.

Brooklyn unibertsitatea benetan ederra da. Mendialdean zaudela uste izango zenuke.

Sartzeko test bat egin ziguten. Samurra zen. Ongi egin nuela seguru nago.

Noiz da zure urtebetetzea? Zure urtebetetzerako zerbait bidali nahi nizuke. Ez estutu horregatik. Benetan, zerbait bidali nahi dizut.

Hots, ongi ibili. Eta mesedez, idatzi niri atzera laster. Zure berriak oso gogozkoak ditut. Eta agudo geure artean izango zaitugulakoan, agur.

Love, Laura"

Izeba. Bilbon kontatuko dizut istorio hau nola bukatu zen. Nahiko tristea da. Laster arte!

Kiloko musu bat eta horko guztioi goraintzi.

Aitor

Kritikabideak

▼

Juan Ramon Makuso

Urtzi Urrutikoetxea

JUAN RAMON MAKUSO

Hiri politikotik hiri poetikora

"Gizakia izaditik deserrotua dago. Agian, noizbait, bere ingurune naturalera ongi egokitua egon zen. Baina, kontraesana dirudien arren, ausartuko nintzateke esatera, gizakia, noizbait, bere ingurugirora ongi egokitua egon balitz, ez zen gizakia." (1)

Izaditik hirira

"... garbi dago hiria gauza naturaletako bat dela eta gizakia izaeraz hiriko animalia... Gizakia edozein erle edo beste edozein animalia taldekoi baino gizartekoiagoa izateko arrazoia zein den garbi dago. Izadiak, diogunez, ez du ezer alferrik egiten. Animalia guztietan gizakiak baizik ez du hitza. (...) Hitza ordea, komeni dena eta kaltegarri dena, bidezkoa eta bidegabekeria, adierazteko erabiltzen da. Eta hori gizakiei animaliei ez bezala dagokie: berak bakarrik ongiaren eta gaizkiaren, bidezkoa denaren eta bidegabekeria denaren eta gainerako neurketen sena edukitzea hain zuzen. Hauetan komunitatearen parte-hartzeak familiaren etxea eta hiria sortarazten zituen." (2)

Aristotelesek, testu honetan, "Politikan" hain zuzen, zera proposatzen digu: gizakia abere politikoa dela, hitz egiten duela. Eta, gainera, etikoa eta morala dela. Eta hau guztia berez. Beraz, gizakiaren berezko etxea, zein da? Hiria, gizartea.

Hemen azaltzen ari garen egoera eta gizartea, konkretua da, greziarra hain zuzen. Eta orain eta hemen, beharrezkoa dugu azaltzea zer esanahi daukan greziarrentzat hiriak, polisak. Hasteko, esan beharra dago polisa instituzio juridiko eta estatal bat baino gehiago zela. Greziar polisean ez zegoen gaur egun estatua eta hiritarren artean dagoen haustura.

Aristotelesek dioena oso nabarmena da, gizakiaren eboluzioak horixe bera adierazten baitu. Guk gizakiok beste gizakien beharra daukagu eta ondorioz besteen hurbiltasunaren beharra. Gure hiz-

kuntza honek, euskarak, horixe bera adierazten digu, gizarte hitzaren esanahiaren atzean zera gordetzen baita: gizartea gizakiaren arteko eraikuntza dela.

Baina eraikuntza honetan zerbait ez doa ondo. Eta baieztapen hau ziurtatzeko Kant filosofo alemaniarraren hitz hauek gogora ekarriko ditut:

> *(...) Gizakiaren gizartekoitasun tratagaitza, hau da, gizartean bizitzeko daukan joera bere baitako borroka da, baina borroka horrek berak gizartea behin eta berriro mehatxatu egiten du (...). Gizakiak sozializatzeko joera dauka; egoera horretan gizakiak bere baldintzak gertuago sentitzen baititu berezko disposizioak esperimentatzean. Baina era berean, joera handia dauka bereizteko, zeren bere baitan aurkitzen du kalitate tratagaitz bat dena bere kapritxopean jartzeko.* (3)

Hitz hauek arestian aipatu dudanaren isla dira. Zergatik, beraz, gizakiok gizakien artean bizitzeko grina daukagu, baina, era berean, gizartetasun hori apurtu egiten da?

Begiratzen badugu gure ingurunera, gizartean, gizakia bera bakarrik gelditzuz doa, gizakiak berak, eraikitzen ari den gizarteari, bizkarra ematen dio. Honen adibideak ugariak ditugu: menerapena, diru zaletasuna, gure artean hobeto kokatzeko lehia, geure arteko lasterketa ero batean erori gara; eta lasterketa honetan topatzen ditugu hainbat izaki jasanezinak ditugunak, baina, aldiz, ezin ditugu inondik inora baztertu, beren beharra daukagu eta.

Bada beste ezaugarri bat gure gizartean: gero eta erosoago bizi nahi dugu eta horretarako egungo jainkoaz baliatu gara: aurrerakuntza eta teknologiaz. Eta hemen kokatu nahi nuke gaurko nire diskurtsoaren gakoa.

Hasieran Platon eta Aristoteles izan ditut hizpide. Haien kezka nagusietako bat zera izan zen: nola lortu gizarte politikorik onena? Baina ez ikuspuntu politikotik, baizik eta filosofikotik. Beraz haiek horrela planteatu bazuten bere garaiko hiriaren etorkizuna, zergatik ez dugu egiten guk Langdon Winner-ek proposatzen duena:

"garai teknologiko batek zergatik ez du egiten galdera hau: zer teknologiak dira bateragarri eraiki nahi dugun gizartearekin?" (4)

Eta hemen erantzutea ez da erraza. Agian hipokrisia pixka bat ere alde batera utzi beharko genuke. Eta puntu honetan argia izan nahi dut, zalantzarik gera ez dadin. Askotan gure inguruan teknologiak "kalte" batzuk eragiten ditu, eta berehala hasten gara aztertzen aldaketa teknikoaren eraginak, aztertu beharrean teknologia horiek zer motatako infraestrukturak sortzen dituzten gure eguneroko bizitzan. Egin behar dena hau litzateke: aztertzea aurrerakuntza horiek nola txertatu gizartean eta, ondorioz, gizakien artean. Hori da lehenengo pausoa. Bestea litzateke gizakiak nola bideratu ahal duen esku artean daukan teknika eta teknologia.

Gizakia bere eboluzioa, garapena eta aurrerakuntza lortzearen alde lehiatu da eta, orain, bere burua gainditua sentitzen du. Kexu gara, gure ingurura begiratzen dugunean haserrearen zantzuak baino ez ditugu ikusten. Hori guztia gure emaitza da. Ez dezagun ahaztu ihesaldia. Ez al da, bada, errealitate gordina duela ehun urte gure hirietako argazkiak erakusten dutena, eta oraingo irudiak erakusten dutenarekin erkatzen badugu? Ezinbesteko baldintza aldaketarena, gu hemen egon ahal izateko, agian beste era batera egin zitekeen guztia, baina baita ere garapenaren emaitza izango zatekeen.

Eta hau guztia hobeto adierazteko hona hemen José Ortega y Gasseten hitzok:

"Gizona bizi den bitartean, kontutan hartu behar dugu bere teknika dela ezaugarri nagusietako bat eta honako tesi hau aditzera eman behar dugu: gizona teknikoa da." (5)

Eredu demokratikoa ez du eskaintzen gure antolakuntza politikoak, zeren gizartearen gainetik eredu ekonomikoa jartzen baita. Eta hemen adibide garbiak ditugu. Eta gure gizartea izanik nire gogoe-

taren aitzakia hemengo adibidea jarriko dut (honek ez du esan nahi hemen bakarrik gertatzen denik). Jaurlaritzatik hurrengo urtetarako martxan jarri nahi dira hainbat proiektu. Ez dut entzun euskal gizarteak zer motatako inplikazioa eduki duen ordenamendu horretan. Eta hau garrantzitsua da, etorkizuneko gizartea eraikiko baita plan horri jarraituz. Eskaintzen zaigunak denon ongizatearekin bat egiten al du? Honek zera eskatzen du: gizakiak nahi duenak, eta plan tekniko horietan eskaintzen dena, aurrez aurre topo egitea eta azkenik bat egitea. Horrela txertatuko litzateke gizakia hirian, benetan ebaluatuko litzatekeelako gure gizarteko konstituzio teknologikoa. Gizarteak, beraz, berak erabaki beharko luke aurrerakuntza zientifiko teknologikoak nolakoa izan beharko lukeen, denen interesak aseko lituzkeena eta ez interes partikularrak.

Dena den, hemen eztabaida oso labainkorra hasten zaigu. Gizarte garatu batek, teknologia egoki bat, nola garatu? Izatez, teknologiak, agian gizakia eta ondorioz gizartea eta hiria gainditzen ditu. Edo energia eolikoak ez al ditu bere ondorio kaltegarriak sortzen? Eta aisialdiarentzat antolatzen den industria guztia ere ez da nolanahikoa. Ez nuke eraiki nahi diskurtso ezkor eta eszeptiko bat, baina bai gogoetarako bideak eraiki.

Gizarteak estrukturalki bere antolakuntza bideratzen du estruktura hori mantentzeko, begiratu gabe, estruktura hori egokia den ala ez. Sistema berak irekitzen ditu bere zirrikituak, haize pixka bat sartzeko, ez inondik inora eraldatzeko. Gizarte aurreratu baten baitan bizi gara eta gizarte honi ez zaio komeni bere burua hankaz gora jartzea, betidanik izan gara arriskuaren beldur, arriskua horixe baita: ziurgabetasuna.

Izadia gizakiak menperatu

Gizakiak izadia bere kontrolpean edukitzea nahi izan du. Nahi hau zientzia modernoaren agertzearekin batera azaltzen zaigu, XVI-

XVII. mendeetan, nagusiki F. Bacon eta R. Descartesekin. Gogoratzea baino ez dugu bi egile hauen hitzak:

> *" Finkatu eta zabaldu Unibertsoarengan gizakiaren menerapen... hau, zientziaren eta arteen menpe dago erabat, zeren eta ezin baitugu natura menperatu bere esanetara ez baldin bagaude."* (6)

> *" ...eta horrela naturaren jaun eta jabe bihur gintezke. Eta hau nahigarria da alde batetik lurraren fruituez eta bertan aurkitzen diren erosotasun guztiez inolako lanik gabe gozatzea baimenduko diguten ezin konta ahala tresna asmatuko direlako, baina baita nagusiki osasunaren iraupenerako ere, bera baita zalantzarik gabe bizitza honetako gainerako ondasun guztien artetik lehena eta euren oinarria."* (7)

Pentsamendu hau guztiz finkatua geratu zen zientziaren ibilbidean gaur egundaino. Dena den, merezi du iruzkin bat egitea bi testu hauen pentsamendua zehazteko.

Lehenik eta behin esan behar da zientziaren izenean lorpen handiak lortu direla gizakiaren biziraupenerako, alegia, zientziaren izenean dena ez dela txarra, bestela galdetu egin behar inguruko aitona-amonei gerra aurretik eta ondoren zer arazo larriak sortzen zituen tuberkulosiak, edo gaur arazo ez diren beste edozein eritasunek. Eta honek Descartesen hitzak baieztatzen ditu, bereziki medikuntzari buruzkoak.

Zientziak, beraz, ez du nahi bere inguruan dagoen hori ulertezina izatea.

Izaditik errealitate birtualera

Eta aurrera jarraitu aurretik, ez nuke utzi nahi aipatu gabe gure gizarte honen beste emaitzetariko bat: informazioak daukan presentzia, beti ere teknologiaren garapenari esker. Baina informazioa, zertarako?

Askotan entzuten dugu informazioa boterea dela eta boterea edukitzeko ezinbestekoa dela informazio iturriak menperatzea. Honen adibide, hor dauzkagu komunikabideen arteko liskarrak, irrati ez-

berdinen gatazkak, adibideetan askorik luzatu gabe. Teknologiak eragin du informazioaren hedadura. Inork ez du nahi hortik kanpora gelditzea, eta inor diodanean, orokorrean gizakiok sartzen ditut. Hemen zuntz optikoa, Internet, telebista, (herri telebistak) aipatzea ez da originala, baina bai beharrezkoa gizartearen eta hirien bilakaera ulertzeko.

Tresna hauen guztien inguruan denetarik entzuten da baina aipagarriena lehen esan dudana da: inork ez du gelditu nahi bidaia honetatik kanpo, Euskal Herria geratuko ez den bezala (hor daukagu zuntz optikoaren hornidura prozesua). Zein da, bada, tresneria horren erakargarritasuna? Hasiera batean nik esango nuke ematen duela zenbat eta gizaki gehiagoren artean lotura izan, orduan eta gizarteratuagoak sentitzen garela. Baina hemen lotura honi buruz hainbat gauza dago esateko.

Alde batetik, teknologia hauek gero eta gerturatuago sentiarazten dute gizakia. Badirudi Internetek hori bideratzen duela. Baina aurkakoa ere esan daiteke. Kontaktu birtual horrek ez al du ordezkatzen gizakiaren gertutasuna? Agian garai hauek gertutasun hori aldarrikatzen dute, hots, gizarteratze prozesua hortik joango dela. Teknologiaren historian aurkikuntza ezberdin asko daukagu, hala nola, inprenta, telefonoa..., eta garaian gizarteratze prozesuan eragin handia eduki zuten. Orain gauza berdina gertatzen ari zaigu. Fenomeno teknologiko berri hauek bere horretan hartu behar ditugu, ez gehiago ez eta gutxiago.

Internetek sortu duena hasierako Aristotelesen testuak zioenaren aurkakoa da. Hau jadanik aldatu egin da. Gizakia bere eremu espaziala handitzen joan da, eta azkenik, gizartearen eta hiriaren eremua hautsi egin du; jadanik gizarte tradizionala, gizakiaren gertutasunak sortzen duena apurtu egin da. Gizarteak ez du mugarik; hauek hautsi egin dira, eta mugagabeko espazio batez mintzatzen hasi behar gara. Baina ez gaitezen mitoetan eror, fenomenoak bere horretan tratatu behar baitira.

Sareak partaidetza bideratzen du, edota hori da entzuten dena behinik behin, are gehiago, demokratizazioa ere ba omen dakar. Ez dut hemen inongo apologiarik egin nahi, ez eta aprobetxatu denboralizazioak eskaintzen didan aukera —ia hauteskundeen zurrunbiloan bizi gara— baina inori ez zaio arraro egiten alderdi guztiak, kolore guztietakoak, sarea okupatu dutela. Batzuek besteek baino gehiago, zuzeneko partaidetza eskainiz. Eta amarru honetatik daukagu arretaz begiratu beharra. Demokratizazioa omen dakar sarearen erabilerak gizarteratze prozesu hauetan, zuzeneko partaidetza eskainiz gizakiari. Hau benetan horrela da, baina oraindik ez dago garatua.

Bestalde informazioaren mito honek badu bestelakorik ere. Hara: teknologia berri hauen garapena, gizartearen esparru guztietara hedatzen ari da, baina zentzuzkoa al da? Gizakiok ba ote dugu gaitasunik teknologiak eskaintzen duen abiaduraren parera iristeko? Gizarte praktika guztiek hori behar baldin badute, gizartearen amaieran gaude. Ez dago espaziorik gizakiarentzat, espazio hori apurtu delako. Ez dago elkartzeko gune bat; sareak, mugak birdefinitu egin ditu.

> *"Gure historia hasi genuen izaditik hies lotsati bat eginez. Denboran zehar urruntze hori handituz joan da. Gaur egun bidea errealitate birtualean amaitzen da. Naturazkotik birtualera, eta historiak jarraitzen du."* (8)

Agora berria kableen bitartez ari gara eraikitzen. Hau izango da gure hiri berria. Ez hobea ez txarragoa, beste bat baizik.

Hiriaren poesia

Arteak dituen erakusleiho ezberdinetatik, hiriari eta bere kale zabal edo kale estuei, eskaini dio arreta. Klasikoetatik hasi —Sofoklosen *Antigona*— eta gureraino iritsi bitartean, besteak beste, —Kavafis, Aresti, Atxaga— asko izan dira egin diren aipuak hiriari eta hirirako.

Hiria kontzeptu gisa gizakiari dagokio: gizakia, hirian hiritartu egiten da, azken finean hiriarena bihurtzen delarik. Hori gertatu bitartean, zer da gizakia? Izena horrekin izendatu baitateke bederen. Haitzuloa aipatzen hasita, gizakiaren ahalegina bertatik ateratzea izan da, behintzat eboluzio biologikoak hori erakusten du, baina Platonen haitzulotik ez gara atera. Eta platondar haitzuloaren irteera gogorra eta malkartsua da.

Zer suposatzen du, bada, irteera horrek? Zergatik irten behar dugu, bada? Malenkoniazko egoera batean txertatuta bizi ote gara? Galderak gizakiaren existentziaren oinarrian eta bere hastapenean aurkitzen ditugu. Eta erantzunak? Saiatzen gara erantzuten, saialdia hori delarik erantzuna baino garrantzitsuagoa. Eta orain eta hemen gure erantzunaren saialdia.

Gizakiaren irteera, bere oinarrizko egoeratik, hirira izan da, hiriak ematen diolako zabaltasunaren eta irekieraren sentimendua.

Gizakiak egin zituen lehenengo giza kontzentrazioak, *poli*sak izan ziren. Polisa eremu txiki bat zen non askatasunaren utopia gizakiaren, gizon-emakumeen kontzientzian hedatu egin zen. Ideal honekin eraiki ziren hiri txiki hauek: denen arteko partaidetza eskatzen zuten ekintzen inguruan biltzen ziren, batasunezko sentimendu bat sortuz.

Batasun hori, sentimendu hori, nola gauzatzen dugu gaur egun?

Galdera hau gure herrira, agian sortu behar dugun hirira, ekartzen dugu. Batasun horren beharrak, batuak ez gaudelako, sentimendu kontrajarriak sortzen ditu gure baitan. Hemen eta orain gogora ekarri nahi dut Joseba Sarrionaindiaren "Ni ez naiz hemengoa". "Ni" horrek, subjektuaren izatea aldarrikatzen duen heinean, ez du aurkitu bere "hemen eta orain" eta are gutxiago espazioaren aldarrikapena —lurra, hiria—. Bere lekukotasuna, bere *toposa*, azken finean gizakiak ez du aurkitu.

Eta zer geratzen da, beraz, gizakiaren oinarrizko izaeraren baitan, lurrarekiko duen atxikimenduaz, lur hori, eremu hori, beste gizon-emakumeekin ez badu eraikitzen?

Eraikuntza aukera gizakiari irekierak eman dio. Behar beharrezkoa izan du gizakiak irekitzea, begiak altxatzea eta bere eremuetatik at lurralde berriak aurkitzea. Garrantzitsua izan da gizon eta emakumeek egin duten ahalegina bere bizitzaren ibilbidean. Ibilbideak anitzak izan dira, eta horietariko bat poetak eta poesiak egin duena izan da.

Hasieratik poetak bere poesiarekin errealitateari aurre egin dio baina paradoxa bati aurre egin behar izan dio: poeta, poesia, baztertua izan da, hiritik alde egin behar izan du. Edo behintzat hori da uste izan dena. Ustea Platonen inguruan eman den interpretazioa izan da, eta egun, oraindik, bolo-bolo dabilena.

Eta ustearen bidetik hori izan da Platonek erakutsi zion bidea poetari, artistari, bere *Errepublikaren* X. liburuan.

Bertan Platonek aztertzen duenean artearen betebeharra gizarte eta hiri idealean, bere hausnarketa arte mimetikoan jartzen du, hau bai delako errealitatea ordezkatu nahi duena. Bere ondorioa da arteak ez duela bere errepublikan, bere hirian, lekurik. Artea —Platonek une horretan *musika* kontsideratzen du espresio artistiko oro, musa edo inspirazioan oinarrituta— itxuraren imitazioa baino ez da eta horrek gizakia aldendu egiten du forma errealetik. Honek ondorio bat du: artistak, poetak, poesiak, oztopoak baino ez ditu jartzen errealitatearen eraikuntzan, eta beraz, poetak alde egin behar du Platonen hiri idealetik.

Baina hemendik, gure ekarpen honetatik, Platon maisu handiari erantzun bat ematen saiatuko gara.

Arestian aipatu dugu gizakiak egin behar duen irteera haitzulotik, eta irteera horrek, hiria duela jomuga, guk hemendik aldarrikatzen dugu. Eta ez da aldarrikapen antzua.

Poesiak badu zer esana, poetak ez du gelditu behar Xabier Letek esaten zigun moduan "eta poeta eta poeta etxean gelditu da ateak itxita". Itxidurak ez du ekartzen eraikuntzarik, zabalkunderik. Poetaren begirada, —eta hemen paradoxa bat aipatu beharrean

gaude, ariketa platondar bat aipatuko dugulako— ezagutzaren errealitaterantz jarrita dago, bere begiak itsaso ertzetik itsaso eta zeru mugaren limitean jarriak ditu, eta hau beti izango da metafora eder bat. Itsasoaren zabaltasunak hiri irekietako gizaki askeak irudikatzen ditu. Hiriaren eraikuntzan, poetaren poesiak arrastoa ez ezik, zutabeak, markak utziko ditu.

Eta gogoeta hau amaitzeko, poesiaren baliabide delarik, Bitoriano Gandiagaren "UDA BATEZ MADRILEN" poema liburuari Juan Mari Lekuonak egin dion sarreran hau aipatzen da:

> *"Oraingo honetan gure poetak, Arantzazuko mendi arte eta mendi ingurutik, Madrileko hiri handira egiten du txango".*

Bitoriano Gandiagak bere izpiritua ireki egiten du hiriaren zabaltasunera, bertatik besteak beste hau esateko aipatu dugun liburuaren ETA GIZONA atalean:

> *"GIZONA DA: Hiria baino*
> *lehenagoko den gizona.*
>
> *Eta beste bertso hauek gizonak hiriarekiko eta honek gizonarekiko ezartzen duen erlazioaren isla direlako:*
>
> *"Bilboko kalerik handienetan*
> *ez dut ohartu inoiz taldeak*
> *hainbestean gizona*
> *irensten duen sentsazio abarrik."*

Gabriel Arestiren Bilbo, ibaitik itsasora lekutzen dena. Bilbo hura herdoildua eta era berean distiratsua.

BIBLIOGRAFIA

(1) J. San Martín. *La tecnología en la sociedad de fin de siglo*, Teorema, vol. XVII/3 1998.
(2) Aristóteles, Politika.
(3) Kant, *Ideas poara una historia universal en clave cosmopolita y otros escritos sobre Filosofía de la Historia*, Tecnos, 1994.
(4) L. Winner, *La ballena y el reactor*, Gedisa, 1987.
(5) J. Ortega y Gasset, *El mito del hombre allende la técnica*, Teorema, vol. XVII/3 1998.
(6) F. Bacon, *Novum Organum.*
(7) R. Descartes, *Metodoari buruzko diskurtsoa*, Klasikoak.
(8) J. San Martín, *La tecnología en la sociedad de fin de siglo*, Teorema, vol. XVII/3 1998.

URTZI URRUTIKOETXEA

Bilbo gure literaturan

Euskal literaturaren (eta euskararen munduaren, oro har) eta hiriaren arteko harremana modernotasunetik baino ezin ulertu. Hiriburu historikoan, Iruñean, XIX-XX. mendeetan galdu ziren bertako euskaldunak, herrietatik etorritakoen esku geldituz euskara hirian. Euskal Herriko hiriburu ekonomiko eta hiri handienean, Bilbon ia-ia beste horrenbeste gertatu zen, nahiz eta, ia modu exotikoan izan arren, euskararen hari fin hori sekula ez den eten: jatorrizko euskaldun gutxi batzuk aurki daitezke oraindik ere zenbait auzotan. XXI. mende hasierara, berriz, Euskal Herria *benetako*, nolaibateko metropoli osatzen duen hiri bakar batekin heldu da. Ezer gutxi hiriburu handien aldean, bistan da, baina bai Europako tamaina ertaineko hiri gisa.

Zaila da, horratik, hiriaren izaera batez mintzatzea. Hiriek, herri, baserri eta bestelako giza multzoen aldean, aurpegi asko eskaini ohi dituzte. Baina badago uste orokor bat, hiri bat kontserbadoreago edo bestea toleranteagotzat hartzeko, eta horrek ez du esan gura, noski, hiri horretan aurkakorik ez dagoenik. Baina onartu egiten dugu horrelako adjektiboak ezartzeko izpiritu orokor bat badagoela, dela Bartzelona multikulturala, dela Berlin dekadentea, dela Amsterdam tolerantea edo Santiago de Cuba errebeldea.

Bilbo portuarekin lotuta dago halabeharrez. Bere historia itsasadarrekin batera doa, eta merkataritza, bistan da, erabaki politikoekin batera joan ohi da: norbaitek erabakitzen du Gaztelan artzaintza bultzatzea baina produktua Herbehereetan manufakturatzea, eta norbaitek erabakitzen du zein portutatik bideratuko den hori guztia. Eta hori guztia erabakita dagoen legez, merkataritzako hizkuntza zein izango den erabaki eta xede politiko beren ondorio izan ohi

da. Ez du horrek esan gura merkataritza-hizkuntza hori herriak erabiliko duen bera izango denik, jakina. Are, hiriek orokorrean, eta portua eta merkataritza nagusi dutenek zehazki, jende- eta hizkuntza-nahasketa daukate ezaugarri gehienetan.

Baserritik datorren euskaldun ereduak, euskalduntasuna jendemultzo txikiagoan erakusten digu, eta familia eta etxearen talde horretan era indibidualean buruaskia, nork berea landuz aurrera eginez. Nahiz eta merkataritza, diru-kontuak, jokoa, beti-betikoak izan gure artean... euskaldun zintzoaren irudia apurtzen dute, etxekaltearen eredua da.

Itsasaldeko errealitatea ez da hain ezaguna izan baserrikoaren aldean. Beste mutur batean egon da kosta, erabat euskalduna baina kanporako ateak zabal-zabalik. Hor ageri zaigu hizkuntza ez dugula ezinbestean nork bere baitan eta etxerako mugatutako kontua, kanporako harremanak kaltetu baino ez dezakeena.

Hiria ere euskalduna izan da funtsean, baina kostako herrietan ez bezala diglosia sakon errotu da. Ezin ahaztu euskara ikasteko lehen metodoa bilbotar batek eman zuela, Rafael Mikoletak, *Modo Breve de aprender la lengua Vizcayna*, 1653an idatzia eta 1881ean argitara emana. Beraz, euskarazko lehen gramatika-liburua Bilboko euskaran idatzi zen. Mende bi eta erdi beranduago argitaratu zen gramatika hura. Eta esanguratsua ematen du datak. Liburua idatzi zenean, Bilbo erabat euskalduna zela zalantza gutxi. Aipamen hori, herrien kasuan ez bezala, halamoduzkoa izan arren: merkataritza, jende-mugimendua (eta beraz hainbat hizkuntzak ere) nahasten diren kasuan zer da euskalduna izatea? New York ingeleshiztuna da? Eta Londres? Berlin aleman-hiztuna da? Bilbon Kontsulatua, Flandesera eta Ingalaterrara merkataritza bideratzen zuena, gaztelaniaz zebilen, baina Rafael Mikoletak –eta gaur eguneko errealitate hainbat ezaugarrik- erakusten digu kaleak euskaraz egiten zuela. Halabeharrez, Botxoa herri eta baserri euskaldunez inguratutako hiribildu txikia baino ez zela kontuan izanda,

bertako biztanle guztiek beharko zuten euskara, haiekin moldatu behar bazuten. Bidenabar, argi dirudi sasoi hartan jadanik garai bateko *Bilbao* berba *Bilbo* bihurtua zutela bilbotarrek, Shakespeare-n aipamenean ageri denez: *the bilboes*... Ez dirudi oso zentzuzko beraz, XXI. mendean hiriak aspaldi galdutako erdarazko izena berreskuratzea, eta azken mendeetan bilbotar euskaldunek erabili dutena baztertzea.

Alderantziz, diglosiak eta ingurukoak erdaldundu beharrak XIX. mendearen bueltako kontua dirudi. Baina Bilboko gaztelanian gaur egunera arte heldu dira euskarazko berbak, horietako batzuk benetako harribitxiak, euskara mintzatuan ahaztutako berbak fosilduta gorde baititu.

Kontuak kontu, egia da hiriak, portuak, merkataritza, helburu batzuri jarraiki joan ohi direla, XIV. mende hasieratik bertatik, Haroko jaunak carta-puebla ematen diolarik Ibaizabal itsasadar bihurtzen den gunean dagoen herrixkari, lehen ziztada sartzen dio tradizioan, eta beraz euskal ohitura jatorrenean –berbaren zentzurik zabalenean, txarrena barne– errotutako Begoñako elizateari. Munstroa sortu da.

> *Yo Diego Lopez de Haro, Señor de Vizcaya en una con mi hijo don Lope Diaz, conplazer de todos los vizcainos, fago en Bilbao de parte de Begoña nuevamente poblacion evilla que le dicen el puerto de Bilbao*
>
> *Carta-puebla de Bilbao, Siglo XIV*

Elizatearen abaroan sortutako *villa*-k (*conplazer de todos los vizcainos* hori zalantzakorra da gutxienean), Gaztelatik lor zitzakeen pribilejiorik handienak eskuratzen ditu, artilea eta burdina handik ateratzeko. Bai hiria sortu zen lurrek osatzen zuten egituren aldean, bai beste portuenean ere, esan behar baita Bermeo zela Bizkaiko portu nagusi beren beregi Bilbo bultzatzeko erabakia hartu arte. Hala, aurrerantzean Urduñatik Bermeora zihoan garraio orok ezinbestean Bilbotik pasa beharra izan zuen.

Literaturan kontu gutxi ageri zaigu sasoi horretan, baina Dublin moduko hiri ustez literarioaz gauza bera esan zuen Joycek Dubliners argitara eman zuenean, ia-ia Unamunoren sasoira arte. Ezaguna da bilbotarrarekiko barne-gatazkak eta denborarekin izandako aldaketa, Salamancarekiko errotze eta Espainiaren defendatzaile bihurtu arte. Dagokigunean, interesgarria da, lehen aipatu legez 1881ean Mikoletaren lana argitaratu zenean Bilbon dagoen erruduntasun zentzua, Euskal Herrian nagusi den etsipenaren erantzule balitz legez. Eta hori polito azaltzen du Unamunok.

> *Y siempre que podíamos nos íbamos al monte, aunque sólo fuese a Archanda, a execrar de aquel presente miserable, a buscar algo de libertad de los primitivos euscaldunes que morían en la cruz maldiciendo a sus verdugos y echar la culpa a Bilbao, al pobre Bilbao, de mucho de aquello. (...)*
> *Empezaba a ponerse de moda entre nosotros lo de la aldeanería y el maldecir de la villa, invención de hombres corrompidos. Había quien se avergonzaba de confesar que era de Bilbao, y decía ser del pueblo de alguno de sus padres o abuelos siempre que fuese un pueblo más genuina y exclusivamente vascongado.*
> *Y, sin embargo, era la villa la que nos moldeaba el espíritu, era la villa la que nos infundía esa exaltación, era la villa la que estaba incubando el bizkaitarrismo, era Bilbao.*
> *A ti, mi Bilbao, se te desconoce y se te calumnia, a ti no te quieren porque te temen. Tú eres todavía para ellos, para los otros, el enigma y el misterio. Porque tú, corto en palabras pero en obras largo, hablas poco. Haces en silencio.*

Miguel de Unamuno. *Recuerdos de niñez y de mocedad.*

Bilbo izan da gerra karlisten hilobi, Bilbo da foruen Euskal Herri horren galeraren sinbolo, eta halaber, gizarte kapitalista berriaren abiapuntu. Eta horrek ideologia nagusi bi sorraraziko ditu: abertzaletasuna eta sozialismoa. Lehena Sabino Aranaren bidetik datorkigu. Unamunoren testuak argi ageri du Bilbo barik oso zaila dela abertzaletasun horren sorrera ulertzea. Sabino Aranak berak beti egin zion uko bilbotartasunari, Abandoko seme zela nabarmenduz, eli-

zate hori 1870ean irentsi arren Bilbok, gaurko finantza-zentro bihurtzeko. Baina asmatzen du Unamunok izaera proto-abertzale hori hiriak emandakoa dela dioenean, euren gaitz guztien erantzule ei zen hiri hark bultzatu zituen abertzaletasunerantz, euskara eta Euskal Herri ametsetakoa hobeto gordetako lekuetan baino gehiago.

Kontu ezaguna da hori guztia, sozialismoaren atzetik dagoen historiaren antzeratsu. Mende-aldaketatik Gerrara artean Bilbo aberastu egingo da, karlistaden amaierak hasitako industrializazioak I Mundu Gerraren pagotxa dakar Bizkaiko oligarkiarentzat. Lehen abertzaletasun hark etorkin oldera bideratzen du laster, besteak beste, galtzen ari den euskalduntasunaren errua. Ez da egia osoa, Bilbo lehenago hasi baitzen erdalduntzen, eta etorkin olde horretan ez da euskaldunik falta. Bilbo eta Ezkerraldeko langile eta meatzari-auzunectan, Gaztelatik etorritakoen aldamenean litekeena zen Arratiako familia bat bizitzea. Horren adibide garbi Dolores Uribarri, Pasionaria, aita euskaldun eta ama gaztelauaren alaba.

Eta beste muturrean beste horrenbeste aurki dezakegu, Bizkaiko oligarkia osatuz. Getxoko udalerrian dagoen Neguri auzuneari, aberastasun horren sinbolo, Resurreccion Maria de Azkuek eman zion izena, aberaskien Neguko Uria baitziren hango etxetzarrak.

Aldaketen mende hasiera horrek euskal kulturaren hiritartzea ere badakar. Bilboko kaleetako hizkuntza arrunta izan ez arren, bai herri kantek (bilbainadek), bai gaur arte heldu den gaztelaniak, euskal berbaz josita (batzuk euskara mintzatuan ere ia galduak) argi ageri dute zein unetan zegoen hiria.

Euskaltzaindia, Euzkadi aldizkari eta beste mugimenduak ez dira zehatz-mehatz bilbotarrek sortuak, baina hiriburua da horiek guztiak biltzen dituena. Hermes eta Blas de Otero nabarmentzen dira erdaraz, Azkue da mende erdi horretan Bilbon jardunean diharduena, Ebaristo Bustintza Kirikiñok ere Euzkadi aldizkarian ia literatur editore dihardu. Lekeitiarra bata, mañariarra bestea, hirugarren bat ezin ahaztu, Laukizkoa, Bilbotik 10 kilometro eskasera, inguru era-

bat euskaldun eta baserritarra, baina hiriburua eta industriguneak ber-bertan dituela. Lauaxetaz ari gara, jakina.

Eta Lauaxetaren moduan eteten da Lehen Pizkunde horren haria, tragikoki. Karlistaden amaierak eta foruen galerak indar kultural eta politiko erabatekoen abiapuntu dira. Abangoardiak gurera dakartza Lauaxetak, bere poesian espainiar eta europar errealitateen jakitun zen autorea daukagu.

Euskaltzaindia da urte ilunetan euskararen hari finari eusten dion erakunde bakarretakoa Hego Euskal Herrian. Kultur produkzio handiena erbestean egina da. Eta Lauaxeta hil eta mende laurden eskasera, euskal poesia goitik behera astindu eta berrituko duen behin-betiko egilea daukagu. Bilbon sortua, familia karlistan, euskara belaunaldi bat lehenago galdua, Zorrotzako portuan kontularia. Gabriel Arestik euskalduntasunaren kontraesan guztiak biltzen ditu bere baitan. Baina hori beste askok ere badaukate, Arestik ordea poesia idazten du –besteak beste– eta euskaraz egiten du, ikasitako euskaran, oraindik batu gabe dagoen euskara batuan. Bilbotar gazte, euskaldunberri eta probokatzaileak, Blas de Oteroren lagun handiak, Euskal Herri zapaldu horri, Euskal Horri idiliko horri, erauzitako Sabin Etxeari kantatzen dio lehen urte haietan... laster, ordea, benetako Euskal Herria Zorrotzako portuan topatuko du.

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.
Bien bitartean
Anton eta Gilen zeuden
zerrarekin
tronko hura erdibitzen.
Sokarekin...
Eztago kablerik...
Bestela...
Tira eta tira,
orain Anton,
gero Gilen,
eznaiz hilen,
Gilen.

Hemen euskeraz
ta han erderaz.
Birao egiten zuten.
Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,
berdin tratatzen baitu
erdalduna
eta
euskalduna.
Arbolaren neurriak hartu nituen.
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.
(Amak gauean pentsatu zuen errekara
erori nintzela). Eta esan nuen:
Beti paratuko naiz
gizonaren alde.
Gilen.
Anton.

Arestik ezagutzen du "betaurreko" hitza, baina "antioju" erabakitzen du, portuan diharduten arratiarrei entzun izan dien legez. Eta hala, Zorrotza, Otxarkoaga, Karmelo, Basurtu eta antzeko auzoak agertuko dira bere lanetan, Bilbo, bai, baina langile eta etorkinen auzoak.

Bere baitan ditu Arestik hirian ageri diren kontraesanak: euskara galdua, aita Zornotza aldeko euskal familiako karlista, ama Kantabria aldetik etorritakoa, emaztea ere etorkinen alaba... eta hala ageri du: abertzaleei herri-borroka baietz baina Zorrotzako portua gogora ekarriz, komunistei langile-borroka baietz, baina herri eta hizkuntza debekatu bat daudela gaztigatuz.

Gorbeiara joateko gutizia sortzen zait barrenean,
bertan organizatzeko euskeraren salbazioa,
baina hemen geratzen naiz,
kale arte honetan,
milagro baten zai,
egunero bizarra kenteari uzteko
nahikoa kurajerik
ez baitut.

Arestik ez dauka Bilbotik alde egiteko asmorik, azken batean hiririk gabe zentzua galtzen duenez bila dabilen guztiak. Kanpotik dakarte euskararen arnas berria etorkinek, baina hiriak berak kutsatzen eta birmoldatzen du. Eta giro hori ideiaz eta pentsamoldez desberdinak izan arren garaiak eta lekuak batutako beste idazle batek ematen digu, Mikel Zaratek, hain zuzen.

Gabriel Aresti 1975ean hil zen, goiztiar. Mikel Zarate 1979an ("Bilbo irribarrez" ipuin laburren bilduma 80an argitaratu arren, Alegiak luze-zabal irakurtzen ziren). Ordurako ernamuinetan zen Bizkaiko hiriburuan gaurko euskal literaturaren luma garrantzitsuenek osatutako banda. Bilbon ikasle zeuden Atxaga, Sarrionandia eta enparauek sortu zuten Pott banda, frankismotik irten berritan sormen leherketa zen hiri antifrankistan, baina 80ko hamarkadako desindustrializazioak ekarriko zuen dekadentziaren usainean. Etiopia idazteko hiriak izandako eragina erabatekoa izan dela aipatu izan du Bernardo Atxagak behin baino gehiagotan. Ordura arte era ordenatuan zegoen anphora hautsi egin da.

Hiriari eginiko poema ederrenetakoa, 1978an Atxagak idatzia, Ruper Ordorikak musikatutakoa dugu:

Herdoilaren tristeziarekin batera,
ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da;
eta bere sabaia laino baso bat,
non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia.
Eta kalatxorien habi eskaleen sakelak,
eta sukalde proletarioaren argi urdinskak
murraila erraldoiaren begi gauero.
Zubi zaharrenetatik
ibaiari so berripaper saltzailea
hitz ezezagunen hiztegi bati bezala;
bus txofer batzu bozeolari hilaz mintzatzen,
apatridak bailiran trenak
memoria karrilen fatalitatean galduz;
denboraren oihal xinglea arratsezkoa soilik;
arrabita baldarren nostalgia kantoietan,
eta harantzago mozkorrak,

kalegarbitzailearen beilegi bizia,
beste zubi bat, prostitutak.

Herrietako ito-girotik askapen hirietan topatzea oso ohikoa izan da beti, eta hala egin izan du hainbat idazlek. Beste zenbaiti anabasa dakarkio horrek guztiak, ezarri eta ezagututako ordena eta koordenadak beste era batera ulertu beharra, eta gutxien espero duzunean, egunkari-saltzailea euskalduna dela konturatzen zara.

Pott ere efimeroa izan zen literatur banda eta aldizkari askori gertatu ohi zaien legez. Geroztik hiriko giro literarioa ez da berriz eten, eta egitasmo baten sorrera, bizitza eta gainbeherak beste bati egin izan dio leku. Ttu-Ttuá nabarmendu zen 80ko hamarkada erdian aldizkari literarioen zurrunbiloan, Laura Mintegik eta Joanes Urkixok gidatuta. Eta Labayru eskolaren abaroan sortutako Idatz & Mintzek oraindik ere argitaratzen jarraitzen du.

Luigi Anselmi, Jesus Etxezarraga, Andolin Eguzkitza, Jon Edorta Jimenez, Juan Ramon Madariaga, Juan Manuel Etxebarri, Manu Ertzilla, Javi Cillero, Paddy Rekalde, Lutxo Egia, Igor Estankona, Unai Elorriaga, Miren Agur Meabe. Azken hamabost urteotako izen batzuk baino. Unibertsitatera etorritako kanpotar euskaldunek, ikastoletako eta beste euskal eskoletako ikasle ohiek, euskaldunberriek, lanera etorriek... gutxitan nabarmentzen den milaka euskaldunen hiria osatu dute. Euskaldun urbano eta eskolatuak, euskaraz alfabetatuak gehienak.

Literaturan, beste alorretan bezalaxe, geroz eta alde txikiagoa dago bi esparruen artean. Herririk txikieneko biztanlea mundu birtualean bizi liteke etxetik irten gabe, lau hormetatik kanpora dagoen mikrokosmos horri erreparatu barik, eta euskal hiririk handieneko biztanleak ez du ordu laurden baino askoz gehiago behar autoz basoko bakardade ia erabatekoan egoteko.

Herri normalizatuetan arazo handi barik heldu ohi diote gaiari, arazo barik egin daiteke jauzia herritik hirira, baserrian dagoenak

lasai asko jo dezake portura orain, bere seme-alabak psikodelia nagusi den diskotekara gero, eta biharamunean erabateko ajez banatzaile lanera itzuli erabat esplotatzen duen ABLEra. Gurean erregistrook bereizteko zailtasun handiagoak ditugu, komunikazio zuzena, ahozkotasunak –telebista eta publizitate bidez, batez erehorrenbesteko garrantzia duenean, hutsetik sortu behar izaten dugu malabarismo bereziak eginez. Hizkuntza handiko idazleak kultur maila jasoko mundutik irten eta marginalitatean jarri behar du belarria, hura zelan mintzo den erreproduzitu gura badu. Gureak sortu egin behar du hori, ez dago edo, dagoenean, kutsatuegitzat jotzen dugu gure orri garbietan jartzeko.

XXI. mendeko Bilbo honek argilunak ekarri dizkio euskarazko literaturari, eta hirian dauden euskaldunei, oro har. Kulturak bultzada handia izan du, zalantza barik, baina XXI. mendeko mezenasgoak ez dirudi hizkuntza txikietan erreparatu zale. Innobazioa, gauza berritzaileak, eredu artistiko apurtzaileak-eta agian bai, baina hizkuntzaren zubiak komunikaziorako ezinbesteko izanik, zubi luzeegia izan liteke zeharkatzeko.

Argia dirudi elebakartasunaren mitoa apurtzear dela, ezinbesteko izango zaiela elebakarrei –euskaldunok ez gara idiotak, besteak zioen legez– beste hizkuntza batzuk jakitea, zerbitzuetara bideratutako hirian. Eta han-hemenka sakabanatutako milaka euskaldunek badugu susmoa guri lepoa emanez altxatzen dabilen hiri berria dela, enbarazu egiten diogun hiria, mundura ateak zabaltzeak euskara eta horrelako txikikeriei ixtea ekarri behar duela ezinbestean.

Aurton bertan desagertu da Gabriel Arestiren omenez landatutako haritza eta oroitarria, Bilboko Arte Ederretako Museo aurrean, Guggenheimetik oso hurbil eta Deustuko zubira eta unibertsitatera begira. Egin beharreko lan batzuk aitzakia. Zazpi kaleetan galduta, badaude plakak, badaude literaturaz gozatzeko txoko eta ekimenak, Kalderapeko tabernakoa kasu, baina badirudi nazioarteko kultur hiriburu bihurtu gura duten Bilbon ez dakitela zein txoko eman

euskarari. Bilbotarrok, hiriko euskaldunok, aspaldi erakutsi arren euren zurruntasun elebakarrean baino askoz moldakorrago eta zabalago izaten dakigula, ezinbestean ikasi behar izan baitugu.

Unamuno aipatu dugu, Blas de Otero agertu da, Hermes aldizkaria... lehenak euskara katedrarako aurkeztu zuen bere burua, bigarrenak Aresti izan zuen adiskide handi. Gaur egun ere badago Euskal Herriko beste leku batzuetan aurki ezin den harremana euskaraz eta erdaraz diharduten idazleen artean. Juan Bas, Pedro Ugarte, Miguel Gonzalez San Martin... ez dira egile ezezagunak, nor bere bidetik ibilita ere egon ohi da euskal eta erdal idazleon bideek bat egiten duten unerik. Ohi denez, diglosiak bere nagusitasuna agertu eta euren lanez bakarrik berba egin daitekeen arren, denok irakurtzeko gai garen bakarrak. Euskaldunok ez baikara idiotak.

Txosten monografikoa: Hiriak

▼

Itxaro Borda

Joseba Iriondo

ITXARO BORDA

Metropolis

Bizitzak hirietan higatzen ditugun nekazari umeak gara. Hiriak gatibatzen gaitu eta noiztenka hiririk erraldoienak espazio natural hutsak direla iruditzen zaigu. Urratsek batzuetan, erdiguneetan irekitzen diren baratzeetara eroaten gaituzte eta han, mundutik kanpo gaude, mendi baten gainean bezala, bakarrik, isil eta gogoetatsu. Funtsean, uste dugu dagoeneko ez dela bas-herrien eta hirien artean hainbestetarainoko ezberdintasunik.

Ideologiak du arroila zulatu eta zulatzen. Exodo oldeek, oraindik ere nabari dira, bizidunak bultzatu dituzte baserrietarik hirietara. Sinetsi da hiriak baserriak baino balio sinboliko gehiago zeukala, batez ere balio-zurubi finkoak moldatzen trebe zen hemeretzigarren mendean, hala nola zuriak beltzak edo sartaldeko kideak sortaldekoak baino gehiago ziren garai hartan. Badakigu noraino joan diren ustekeria horiek oro. Ondorioak gaur egun ere ikus ditzakegu, Parisko parlamentuak kolonizazioaren *balore positiboa* lege bidez bermatzen duelarik.

Hiria aktualitatean dago. Iragan urria bukaerako Frantziako bazter-hirien oldartze garratzek erakutsi dute hiria nahasia, anitza eta pilpiratsua dela beti. Hor dira biltzen boterea daukatenak eta boterea bete-betean jasaten dutenak. Iraultza garaikideak hirietarik abiatu dira, hargatik Erdi Aroan baserriak ziren asaldatzen, zapalkuntzak hirietan eraman dira: erraten da protestanteen aurkako 1572ko San Bartelemi gauaren biharamunean, Seinaren azalean hilotzak bazebiltzela burrustan eta 1919an Berlingo Spreea gorri isurtzen omen zela.

Herriak nola, hala hiriak ere jendeen nahikundeak kudeatuz sortu dira. Etxe multzo eta karrikek azpatzen dute ametsa, izpiritua eta handitasun lehia. Hiriek *destinu* bat daukate eta aldaketak ez dira de-

balde egiten: jende lekuztatze, etorbide urratze, hiriguneen espezializatze etab., gertakari gatazkatsuak dira. Hiria osotasun sozial, ekonomiko eta kulturala bat dela imajinatzen da. Botereek beren atzamarraren hatza uzten dute hiriaren gorputzean, Historian zehar.

Artea hor da, eta literatura bereziki, hiriaren *destinua* paperean etzateko, molde subjektiboan, ikerketatik urrun, ardura menperatua den behialako gorputz malgo horri arima eskaintzearren. Batzuk hiri bat bisitatu aurretik, hiriaz idatzitako fikzio edo olerkiak irakurtzen dituzte. Arthur Schnitzler edo Elfriede Jelinek irentsi ondoan hain atzerritar ez gara Wienan.

EUSKALDUNAK ETA HIRIAK

Euskaldunak zailtasunak ditu hiriaren zilegitasunaren onartzeko. Oro har, euskalduntasunak ez ditu hiriaren ezaugarriak bereganatu eta gure hizkuntza hiritartzeko saioak ez dira emankorrak suertatu. Herrietan euskararen oiharra zuzenagoa da hiri handietan baino. Argiki ohar daiteke horretaz, seinalakuntza guztia elebidun izan arren, euskal hirietako karriketarik paseatzen denean. Eta ez da kritika bat, euskalduntasunaren -beste hitzik ez idazteko, abertzaletasuna adibidez- hirietan txertatzeko ezintasunaren emaitzetarik bat baizik. Luzarako egongo da Bilbo euskaldunentzat, Joycek Dublinentzat aipatzen zuen *hemiplegia* hori. Lan egiten da bertan, baina bizi bistan dena, inguruko herri urbanizatuetan.

Hemeretzigarren mendeko abertzaletasunaren sortzaileek euskal mundua nekezal munduari uztartu zioten. Hegoaldekoek bezainbat iparraldekoek. Europa osoan modan zen, nazionalismoak herritarren *ohiko bizimoduetan* finkatzen ziren eta herritarrak kanpainetan zeuden orduan. Nazionalismoek urte franko eman dute iraultza industrialaren liseritzeko eta hilabetesaria jasotzen zuen langilearen nolabaiteko duintasunaren onartzeko. Alabaina, langilea laborariarekin erkatuz, betirako norbaiten *mutil* izanez, alferra da, orduak egiten ditu, batzuetan arinki -famaz bederen- eta denbora libre

gehiegi dauka. Nazionalismoak lurrari eratxekiak dira, balizko eratorriak mehatxu.

Ez da mende erdia nazionalismoak hiriari interesatzen hasi direla. Beraien segitzaileek baserriak abandonatu berri zituzten eta lana hirian atzemanez, itzulerarik gabeko bidea zegiten. Predikariak alkiz aldatu ziren. Hargatik, nazionalisten hiria ez zen hiri osoa, nazionalistek lorpen soziala erdiesten zutena baizik. Hiriak behar zion migratzaileari zerbait ekarri, ospea, dirua, erreusitzea. Ez zen hirira joaten ahal huts egiteko, sortetxean bezain pobre eta herresta gelditzeko. Jende-saldoek, hirietan beraien zokoak mugatu zituzten, nonahikoak izanik. Parisen, Pauen, Ameriketan edo Filipinetan, denetan euskal etxeak badira, eta etxe horietan aitzinako supazterreko giroa kausitzen da, bihotzen altxagarri. Euskaldunentzat, irlandesentzat, italiarrentzat, grekoentzat on dena, on ditake halaber arabe eta beltzentzat, komunitarismo eritasun likitsa leporatzeke.

Beldur erraldoia landu zuten *Eskualduna* eta beranduago *Herria* astekariko kazetalariek hiriei buruz. Baionako Euskal Erakustokian eta liburutegi munizipalean irakur daitezkeen lekukotasunak zinez interesgarriak dira. Hegoaldean menturaz, izu berdina hedatzen zitekeen egunkarietan. Bitxia zen, hiria ez zitzaion gizonari debekatua, nonbait arrazoitsua zelakoan; euskaldun-fededunak bazekien zer zen ongi eta zer gaizki. Emazteentzat aldiz, hiria itsuskeria zen, birjinitateaz gain odolaren garbitasuna galtzea arriskatzen zuen tokia baitzen. Piarres Arradoien *Kattalinen Gogoetak* (1956) moldatuak ziren baserrietan geratzea xede zuten neska gazteentzat, ez hirira genealogia eta arima zikintzera ihes zihoazenentzat -gure amak!

Haize parpaila bezala inarrosten zuten apez eta notableek hiriaren beldurra eta bizkitartean neskatxak sehi joaten ziren milaka, ezin bizia zutelako herrian. Euskal egitura moralak *Tupintegiko Roxali*ren kanta trufaria asmatu zuten, ohorerik gabeko emazteen urratsen gutxiesteko. Sail honetan, batek galda lezake zergatik ameriketarako migrazioak hain baikorki aztertuak diren gurean. Ipar eta hego

Ameriketara joan zirenetarik gutxi ziren hirietan kokatu, artzaingoan jarraitu zuten Green River eskualdean Baigorriko lurretan bailiran. Eta gizonezko emigrazioa zen. Besteak, sehi bihurtuko ziren emazteenak, bigarren mundu gerlatik honakoak, hiriak zituen helburu. Ez zen Pierre Lotiren *Ramuntcho*ren antzeko lan erromantikorik izkiriatzen ahal langile soiltzen ziren etxeko premu ohien istorio patetikoekin.

Euskara ere baserriaren errealitatearen errateko tresna gisa moldatu zen. Ardura, hizkuntza laburregia geratzen zaigu gaurkoan testuetan hiriaren agertzeko eta erdarakadetara lerratzen gara, erraztasunez baino ezintasunez. Laurogeiko hamarkadan leitmotiv bat bazen, euskal inteligentsiaren lerroetan: literatura hiritartu behar zen, baina arrakastatsuak izan ziren orduko obretan orokorki kanpainak dira handizki hedatzen *Obakakoak, Babilonia* edo *Ur Uherrak* baizik ez aipatzeko. Agian hazten ari den azken idazle belaunaldiak aldaketa dakar alor horretan, hiria bere itzal argiekin azalduz. Irudi luke hiria istripu bat dela Euskal Herrian: baserriaren eta bortüko artzain giroaren nostalgikoak garela ezin uka.

HIRIAK ETA AMETSAK

Inguratzen gaituzten literaturetan aldiz Hiriaren itxura hitzez azpiltzeko jaidura aspaldikoa da. Frantsesezko eleberrietan Paris jauntzen da hemeretzigarren mendetik honera. Honoré de Balzac eta Emile Zolak hunkigarriki nobelaratu zuten eta beranduago Marcel Proustek bere *Denbora Galduaren Bila* erraldoian. Frantses zentralismo kulturala hain indartsua da non beste hiriak literaturalat pasatzeak probintzialismo kutsua dakarren. Jean Giono edo Pagnol idazle apalagoak dira Probentzia delako beren obraren muina. Gaur egungo frantsesezko literaturaren ikuspegia berdina da, Parisen plantatzen dira narrazioak edo Paris dute iturburu, mundu zabalera edo probintzietara eskapatzen diren arren, Marie Darrieusecq *Le Pays* kasu. Euskal izkiriatzaile batzuk, hala nola Patxi Ez-

kiaga edo Fito Rodriguezek Parisen girotzen dituzte olerki eta nobela zenbait.

Hargatik Hiria ardatz daukaten arte-lanik erakargarrienak ez datozkigu Paristik. Funtsean, Paristik kanpo idazten duen bakoitzak bere hiria du fikziora iragaten. Vasquez Montalbanek Bartzelona zuen hari, Gao Xingjianek Yunnaneko Ghizou, James Ellroyek Los Angeles, Pasolinik Erroma, Amistrad Maupinek San Francisco, Bohrumil Habralek Praga, Yosumari Kawabatak Kioto, Charles Dickensek London, Dantek Firenze, Alfred Döblin eta Hans Falladak Berlin, Robert Musilek Wiena, Sandra Scoppettonek New York, Dimitris Hadzisek grezia iparraldeko Ioannina eta Nikos Kazantzakis handiak Kretiako Hirakleioneko itsas bazterrak. Zerrenda bururagabea, tokia bagenu.

Hiru bider begiz jan dut *Eye Wide Shut* Stanley Kubricken azken filma. Ez bakarrik Nicole Kidman eta Tom Cruise animaleak zirelako, bai eta ere Fridolin mediku gaztearen hirian zeharreko gaueko ibilaldia zoragarria zitzaidalako. New Yorken barna doa Tom Cruise. Mila eta bat gertakariren lekuko da, oroz gainetik bere gogoa iraultzen duen andrearen ametsaren haginei ihes. Kubrickek erakusten duen hiria misterioz eta mehatxuz mukuru datorkigu, maita eta gorrotagarri. Azpimarragarria da, hargatik, asmatzea obra bera egin zitekeela Europako hiri batean. Egia erran Kubrickek Arthur Schnitzleren *Traumnovelle* (1925) lana hartu zuen pelikularen ardatz. Eta Wiena da atzealdean, ametsaren eta erreal amestuaren holtzartean zartatzen.

Zinema egokitu zaio hiriaren errealitateari. Zinema hiriaren artea dela sinestera behartuak gara. Italiarrek benetako ahuspe-kantak eskaini zizkioten Erroma, Hiri Eternalari. Vittorio de Sicaren *Bizikleta Ebaslea*, Ettore Scolaren *Itsusi, zikin eta gaizto*, Felliniren *Dolce Vita*, Rosseliniren *Erroma, hiri irekia* edo Dino Risiren *Piztiak* liburuak irakurtzen balira bezala irensten dira. Italiarren zinema errealistak batez ere hirietan gertatzen diren nobela beltzetako giroa emendatzen du. Nobela beltzak, polizia edo detektibeenak, hirien eta sozialki

baztertuak diren hiritarren gorazarrez idatziak dira, hala nola David Goodisen opera iluminatu batzuek Ameriketako leku zenbait behinbetiko memorian bizihazten dizkiguten.

Arianaren hariari tiraka eta zinemara itzuliz, Wim Wendersek Texasko Paris eta Montanako Butte goretsi eta ezagutarazi aurretik, Alemaniako hiriak hartzen zituen istorioen azpiltzeko: Wuppertal *Alice in die Stadten*, Hanburg *Der Amerikanische Freunde* eta Ober eta Rheins ibaiek mugatzen zuten no man's land bat *Am Lauf der Zeit* miresgarrian. Baina Wim Wendersek filmerik ederrena Berlini zuzendu zion *Der Himmel über Berlin* (1987). Niretzat *Eye Wide Shut* bezala, *Desiraren Hegalak* film perfektua da. 1989ko azaroan lankide batzuekin, nagusiak oporrak zilegitu balizkigu, Berlinera abiatzeko arrabia sortu zigun eta dakusadan oroz, Berlinera deitua naizela oroitarazten didate Aingeruek.

Berlinen preseski 1927an errodatu zuen Fritz Langek *Metropolis*, bederatzi hilabetez. Etorkizuneko hiria da, gain eta pe batean banatutako Metropolis. Gainean, aberatsak eta boteredunak bizi dira eta pean makinen menpe zinpurtzen diren langile pobreak. Joh Fredersen diktadoreak manatzen du. Feder, diktadorearen semea Maria, populuak iratzarrarazten ari den esklabuaz maitemintzen da. Federek hiri-peko miseria deskubritzen du eta herresten alde mintzo zaio aitari. Aitak hirian barna izua barreatzen duen Mariaren itxurako robot bat moldatzen du. Baina amodioa da irabazle, amodioa, justizia eta humanismoa, Feder eta haragizko Mariaren arteko maitasunak klase borroka ezabatzea lortzen duelarik. Nazismoaren lehen urratsen lekukotasun ankerra da filma batetik, Döblinen Alexanderplatz nola, garai berekoak dira, eta bestetik hiriaren zereginari buruzko galdetegia: nola bizi hirian, nola antolatu pobreek eta aberatsek, zuzentasunean hiriaz goza dezaten. Ez diegu oraino eskakizun horiei erantzunik atzeman.

Metropoliseko humanoideak bilakaera berezia ukan du hogeigarren mendean, Maria eta Federen figurak Philip K. Dicken *Blade*

Runner nobelan agertu baitzaizkigu, Rachel eta Rick pertsonaietan. Ridley Scottek ekarri zuen istorioa pantailetara 1980ko hamarkadan, eta denboran, Edorta Jimenezen ipuin batean Blade Runner krudel bat gurutzatu nuela gogoratzen naiz, Bilboko apartamendu bateko bainu-gela batean, odoletan ihalozka. Eta hala ez bazan sar nadila kalabazan... Oro har, film eta nobela hauetan jezartzen zaigu hirietan bakarrik ernaltzen den arrangura bat: gu ez bezalakoa maita ote dezakegu? Baserrietan kezka honek errorik ez du, denak hein eta gustu berdinekoak garela susmatzen delako. Ezberdinak herria abandonatzen du, bere ezberdintasunerako tirria -ekonomikoa, soziala, kulturala, sexuala- hirian bizitzeko.

HIRIAK ETA URRATSAK

Hiriak ezezagunak dira, bertan bizi arren. Egunerokoarekin ez dugu ardura astirik karrika, zoko eta baratzeetan helbururik gabe ibiltzeko. Ezaguna eta ezezaguna, berdina eta ezberdina nola, hirian urtzen dira, nahi den erarat bizitzea baimentzen duen anonimatoa segurtatuz. Hiriak jendea *izaten* laguntzen du, distiratsu edo likits, biak gizon-emazte destinutzat dauzkatela idazleek. Hiriz aldatzeak ez dio ibilaldiari ikuspegi berri bat ematen, baizik eta errepikapen bat, errepikapenaren sakontzea.

Edozein hirietara heltzean, aireportu edo geltokitik nabaritzen dut hiriaren hats hartzea. Une preziosoa iruditzen zait. Eta denbora behar dut orduan urratsa akuilatzeko. Athenasko Spata aireportura iritsi ginelarik lehen aldikoz, Grand Junction Coloradokoan bezala, airearen berotasunak gatibatu gintuen alaba eta biok. Eta errauts gorri arinaren usainak. Hizkuntza ez jakin, ingelesak salbu, hiriaren egituraren ideiarik ez, autobus batean sartu ginen eta berrogei kilometroko bidea egin genuen, Athenas sarrerako hiri-bazterrak zeharkatuz, Sintagma plazaraino. Maitagarri egin zitzaigun hirian aztalkatu genuen kalearen izenaz oroitzen gara: Mitropoleos, obretan zen eta han beltzez apaindu atsoak hautsaren erdian zeuden, deus

ez bailitzan. Monastirakin aski zen soa ezker ezkeltzea Akropolioaren handitasuna miresteko.

Gogoan daukat halaber, Wienan arrotz, Westbanhofetik Europaplatzera ateratzean, zein galdua sentitu nintzen. Puskak hotelean pausa eta metroa hartu nuen Stephensplatzeraino. Eliza erraldoiaren maldan oren bat baino gehiago higatu nuen Hofburgerako norabidea asmatzen. Hariaren soka muturra ez nezakeen harrapa, Wollzeile karrikan behera, kartan zehazturiko Schubertringera jalgi nintzeneraino. Gero inguruz inguru Heldenplatzera. Orain banakike, itsura, Stephansplatzetik Heldenplatzera joaten, Graben eta Kohlmarkten gora. Gainera ez hain aspaldi, Thomas Bernharden *Holzfällen* nobela izugarrian toki horiek guztiak idatzirik kausitu ditut.

Ez dakit Parisen horrelakorik gertatu ote zitzaidan nehoiz. Austerlitz geltokian jaitsi eta metroz zuzenka Italiako etorbidean neukan etxera lehiatzen nintzen, batzuetan lanera jotzeko minutu eskasak zenbatuz. Paris neureago daukat, batez ere euskaldun gisa. Pariseko auzune txinatarrean nengoen, eta maiz, janaria, usaina, jendeen aurpegi irritsuengatik Beijing edo Bangkoken nintzela zeriztan. Zenbaitetan, ilunbea inarrosten zuten tiro batzuk aditzen ziren, txinatar triada bortitzak zirela komentatzen genuen, Mandarin Massena jatetxeko terrazatik. Urte Berriko besta koloretsuek alegeratzen zituzten Tolbiac eta Olinpiadetako auzuneak, dragoiaren edo urdearen urtea agurtuz. Metroak gelditzen ziren tenoreetan bakarrik sartzen ginen oinez, landerrik ez zen, emazte bakartientzat ere ez. Harrigarria zen.

Athenas, Wiena eta Paris egiazki ene hiri kuttunenak dira. Aipa nezake halaber New York, Central Park eta JFK aireportua. Noizbait harako naiz. Laburregi egon nintzen arren, gustatu zitzaidan hango bizidunen irekitasuna eta hein batean, lasaitasuna, jantzi, izaera edo ibilerari dagokienez. Twins Towersen errausketak zintzoki uki ninduen, xinaurritegi haren maldan egona nintzelako behin. Eta Amsterdam. Eta Antwerpen. Eta Maule. Eta Garazi. Eta

Gasteiz kementsua. Eta Nîmes. Eta Firenze. Eta Donapaleu. Eta Brest. Eta A Coruña. Eta Valença do Minho. Eta Tarragona. Zerrenda amaiezina. Ez dut asko bidaiatzen, eta bidaiatzen dudanean lauzpabost aldiz, toki berera noa, ene espektroei buruz. Enetzat, bakarrik ibiltzearen atseginaz gain, hiria idaztearen plazerra ere badago. Plazer horrek munduan barna eroan nazake, ordenadorearen aitzinetik kantitu gabe.

Benetako hiriak bezain erakargarriak ditezke idazleen burumuin keztatuek asmaturikoak. Hiri bat izenetik haste imajinatzean, arkitekto bihurtzen da izkiriatzailea, geografia eta Historia bereziak sortu behar ditu, pertsonaiak, giroak, hizkuntzak, sintaxiak, borrokatzeko gaiak, gerlak eta bake agirien edukiak. Ez dakigu zergatik batzuetan errealitateko hiri batean kokatzen den narrazio bat eta besteetan fikzioak erreal egiten duen batean. Sorkuntzaren misterioetarik bat da. Halatan nobelen zurkaitz, Obaba, Santamaria edo Makondo adibidez, Wiena edo Paris bezain eraginkorrak suertatu dira. Hiri hauek, Pessoaren heteronimo lerroak Lisboan bezala, idazlea eta historia itxuraldatzeko libertatearen ikurrak balira? Ba ote da egitura demokratiko batean, bat-batean aske sentitzen ez diren idazleak, eta ez soilik arrazoi politikoengatik?

Zientzia-fikzioa bere aldaera ezberdinetan hiri asmatzaile handia da. Erdi Aroko izan elizaren inguruan kirbilkatua Toskaniako Sienna lekuko edo suntsiketa natural zein artifizial batetik landa angelu zehatzetan lurrean haztua hala nola Lakoniako Sparta, hiria bihotz bat da.

Noiztenka Tinbuktu aurkitu zuen René Caillié izan nahiko genuke, edo Tinbuktu lehian Sahara trebeskatu zuen Heinrich Barth bat. Hargatik hiriak deskubritu edo asmatu ordez, maizago imajinatzen da hiriaren suntsiketa, istripu edo zartaketa nuklearraren ondotik demagun. Klasikoa da eta Txernobil ikusi dugu, eta Hiroshima, eta Nagasaki.

Errealitateak hirian, fikzioa klikatzen du.

Denek maite dugu Hiria, noiztik noizera nazka sortzen digun arren. Maite ditugu karrikak, ostatuak, mota orotako elizak, memoria guneak eta gain-gainetik Hiria, gurea, besteena, egiazkoa, euri nahiz elur pean, edo liburu baten orrialdeetarik jaukitzen zaigun gezurrezkoa.

Zientzia ttantarik ezer ez duen testu honetan Hiriaren poetikaz arizan naiz. Hiria eta euskararen destinua noiz elkarri josiko diren galda dezaket bukatzeko. Hala baita diotena, euskararen geroa hiriaren magma pilpiratsutik iraganen da.

Euskal Hiriak, hitzen aiduru daude.

JOSEBA IRIONDO

Suntsitzen ditugun hiriak. *Jalalabad 2001, hiru argazki*

Afganistanera lehen aldiz joan nintzeneko hiru argazki dauzkat ordenagailuaren ondoan. Atsegin dut noizean behin paper zatiok zorrotik atera eta gertakari haiei buruz ametsetan jardutea. New Yorken gertatu berri ziren atentatu hollywoodesko haiekin mundua aztoratuta zebilen. Garai hartako pasadizoak gogoratzen dizkidate argazkietan ageri direnek.

"Harrien herria" deitzen diodanean sartzea lortu nuen estreinako egunetakoak dira hirurak, Jalalabaden egindakoak. Pakistan eta Kabul lotzen dituen bide nagusiaren erdian dago Pashtun etniakoen hiri hau. Baina antzekoak atera zitezkeen Khyber, Sarowbi edo Torkhamen. 23 urtetan zehar era guztietako gerra eta gehiegikeriak jasan zituzten herri eta hiri haiek guztiek zutelako antzeko zera hura. Suntsitutako hiriak suntsitutako gizon, emakume eta haurren aurpegiak dira. Irribarre eza, ikara begiratuak, konfiantza gabezia. Horiek dira benetako txikizioak.

Hala ere, gerra iruditzat har daitezkeen arren, argazkiok ez zaizkit batere desatseginak egiten. Aitzitik, maite ditudala ere esango nuke. Badute zerbait, horrelako irudiak ikustera inguru haietara beste bost aldiz joan naizenean.

MUYAHIDINAK

Zortzi gizonezko ageri dira Jalalabadeko aireportuaren atarian hartutako irudi honetan. Talibanek hain gustuko zituzten pick up furgoneta baten atzeko aldean daude eserita zazpi. Zortzigarrena tente dago, ibilgailuaren atzean. AK47 bana, ohiko "pakora" txapela buruan eta, azaroko egun haietarako hotza egiten hasia zenez, afganiarrek erabiltzen dituzten zapi luze marroiak gorputza estaltzeko.

Bizar luzea daukate oraindik, talibanekin derrigorrezkoa zelako. 2001eko azaroaren 20a.

Zortzi gizonon atzean, antzeko beste ehunka ageri dira, lurrean eserita, armekin haiek ere.

Furgonetan daudenetatik bakarra ari zaio kamerari so. Barrenak gogortuta dauzkanaren begiratu zorrotza du. Azeituna koloreko azal beltzarana eta begi sakonak.

- Hauen eta Talibanen arteko ezberdintasuna zein da, bada?

Egun haietan gurekin itzultzaile zebilen Waheed gazteari hala galdetu nion, ez bainuen ulertzen koranaren ikasleak agintetik kendu eta astebetera non demoniotik agertu zen uniformerik gabeko soldadu pilo hura. Konforme, Talibanen agintaldian derrigorrezkoak ziren turbante zuri edo beltzik ez zeukaten. Baina itxura... taliban itxura bai.

Barrez erantzun zidan, ingeles perfektuan, "duela astebete hauek zituan talibanak, motel!".

Gerra negozioa ez ezik ogibidea ere bada askorentzat. Negozioa - handia- armak saltzen dituztenentzat eta lanbidea - negozio txikiagoa- besterik egiten ez dakitenentzat.

Azken talde horretakoak ziren argazkiko gizonak. Ziurrenik beren buruari Muyahidin deituko zioten, "gudari". Beste hainbat lekutan mertzenario ere esaten diete. Haiek zain zeuden, norbaitek lana emango zain, eta ez aitzurra astintzeko hain justu.

Zazpi egun besterik ez ziren Jalalabadeko agintetik talibanak desagertu zirela, agintea eta herritarrak azken bost urteetan estutu eta gero. Kabul eta beste hainbat hiritan ez bezala, Jalalabaden borrokan egin gabe desagertu ziren koranaren ikasleak. Bonbardaketa bakan batzuk jaso zituzten, baina Kabuletik zetorren albisteak konbentzitu zituen nagusiki. Amerikarrei aurre egiteak ez zuela merezi eta, egokiena, inguruko mendi garaietan ezkutatu ziren.

Orain, haien soldatapean aritutako gizon armatuak zain zeuden, Nangarhar probintziako gobernadore berriak soldatarik emango zien jakin zain.

10 egun lehenago jakin nuen Madrilen Iparraldeko Aliantzak Kabul hiriburua bereganatu zuela, talibanak hegoaldera bultzatuz. Uste baino azkarrago amaitu zen "Bake Iraunkorra" deituriko bonbardaketen lehen zatia: Ezustean, ramadam baraualdia hasi baino lehen.

Pakistaneko mugara itzuli, Peshawarren paper guztiak bete, bidaia antolatu eta afganistanen sartzeko ahalegina egiteko aukera zen niretzat.

Ongi ezagutzen nituen Islamabad eta Peshawar hiri pakistandarrak. Aste batzuk lehenago muga bazter hartan bi hilabete egina nintzen, estatubatuarrek urrian hasitako bonbardaketak noiz amaituko asperraldian.

Madrilen entzun nuen berri hura zen kazetariok Afganistanera joateko geneukan aukera bakarra. Erasoa amaitzen ez zen bitartean, Peshawar eta Kabul arteko bidea debekatua geneukan: Talibanek ez zituztelako atzerritar zelatariak atsegin eta amerikarrek ez zutelako lekukorik nahi, gogoak ematen zien bonba guztiak askatasunez erabiltzeko. Debekatutakoak bereziki.

Abdul haq, sovietarren kontrako gerran ezaguna egin zen muyahidinaren sendiarekin negoziatu genuen Kabulerako bidea egiteko azpiegitura. Afganistan barruan boterea eta armak zituen norbaitekin joatea ezinbestekoa zen, kazetariok ez baikenekien aginterik gabe gelditu berri zen herri bitxi hartan zehazki zer ari zen gertatzen. Beraz Haq sendiarekin lauzpabost auto antolatu eta mugarantz abiatu ginen 2001eko azaroko lehen egunetan.

Khyberreko mugarako bide malkartsuan Yusuf neraman alboan eserita. Abdul Haq zenaren hiloba zen, 18 urteko gaztea. Beste milioika errefuxiatu afganiar bezala, Pakistanen jaio eta hazitakoa zen.

Yusuf ez zen askotan izan Afganistanen. Azken bost urteetan behin ere ez, talibanek harrapatuz gero Haq sendiko edonor hilko luketelako, hilabete lehenago bere osaba famatua garbitu zuten bezala. Ni adina ez, baina asaldatuta zihoan Yusuf ere. Jatorrira, sustraietara zihoan, zer aurkituko zuen jakin gabe.

Pashtun etniakoa zen Yusuf, afganiar gehienen antzera. Ingeles bikaina hitz egiten zuenez, ez nuen aukera galdu eta inguru haietan ezartzen den pashtun legedi harrigarriari buruzko galderak egin nizkion, pashtunwali deritzonaren gainean, "zuzentasunaren bidea".

- Honi zonalde tribala deritzo. Hemen ez dute agintzen ez Pakistaneko ez Afganistaneko gobernuek. Leinuen lege zaharrak ezartzen dira, arau etiko eta penalak.

Yusufek ez zeukan arazorik euren legedi sakratuari buruzko azalpenak emateko, are gehiago harro ari zen.

- Adibidez "melmastia". Norbait etxera gonbidatuz gero, bere alde bizia ematera behartzen zaitu arau honek. Muturreraino betetzen da, eta horregatik ez dute inoiz talibanek Osama Bin Laden amerikarren eskutan utzi, Pashtunak izaki, melmastiari nahitaez jaramon egin behar diotelako, derrigorrez. Beste lege batek "hadal" du izena. Mendekurako eskubidea dakarkizu honek. Hadal betearazi daiteke zure sendiari beste familia batek iseka egin dionean, emakumeei adibidez, edo senitarteko norbait hil badute. Mendekurako eskumena hiru mende geroago ere eskatu daiteke.

Haq sendiak hadal hura zenbat aldiz bete zuen galdetzeari ausardia handiegia iritzi nion, beraz gogoarekin gelditu nintzen.

Pashtunwali araudia osatzen duten bederatzi legeen artean emakumeei ezartzen zaizkien gordinkeriei buruz, ordea, ezin izan nuen isildu. Emakumeen gaia kontu handiarekin hartu behar da pashtunak inguruan badaude. Edozein huskeria emazteen kontrako iseka egiten zaie.

Berak eskaini zidan puntua, amak emaztea aukeratu ziola esan zidanean. Ez zuen behin ere ikusi, Britainia Handian bizi zen. Ezezagun batekin ezkondu behar zuen bi urte barru.

- Emakumeak zaintzeko legeak "namus" du izena. Familiako emakumeen ohorea zaindu behar da. Guk ederki babesten ditugu gure emakumeak. Horretarako da burka: Beste gizonek begiratu li-

zunik egin ez diezaieten. Haragikeriari aurre egin asmoz goitik behera estaltzen ditugu. Beren ohorea babesteko da burka.

Ez zen lehen aldia emakumeei buruzko halako hitzak entzuten nituela. Aste batzuk lehenago errefuxiatu gune bateko buruak esan ez zidan, bada, "emakumea hobekien zaindutako espezieа" zela Kabulen! Espeziea, tximino eta astoen pareko!

Afganistanekin zerikusia duen edozein gauza egiten zait harrigarri eta erakargarri. Erdi Aroko ohiturak gorde eta betetzen dituen herria da. Telebista daukatenetik gauzak aldatzen ari dira, baina 2001ean oraindik hiru mendez atzeratuta bizi zen herria zen. Beraz, Yusufen hitzak entzunez ahoa zabalik iritsi nintzen Khyberreko mugara.

Arratsaldeko bostak inguru izango ziren, egunaren argia azkenak ematen ari baitzen. Afganistan eta Pakistan zatitzen dituen lerroaren ondoan nengoen, Durrand lerroan. XIX mendearen amaieran ezarri zuten Britainiarrek muga faltsu hau, Pashtun herria bitan zatituz. Batzuk Afganistanen gelditu ziren eta Pakistanen besteak.

Dedio, kostatu zitzaidan muga santu hartara iristea! Bi hilabete eta gero ditxosozko lerroa zeharkatzera nindoan!

Berrehun metroko garaiera duten bi harritzarren erdian dago Khyber. Ehun metro zabal besterik ez da izango zeharbide osoa. Erditik igaro ziren hainbat aldiz Alejandro Handia eta Britainiarrak, ia beti makina bat soldadu bazterrean leherturik utzita. Imaginatzen ditut, ondoko haitzetara begira, leinu pashtunak harrika edo tiroka noiz hasiko beldurrez. Haitzetan hainbat hilarri ikus daitezke, mendeetan hildako errejimentu osoen oroigarri.

Egun haietan ez zegoen mugan joan-etorri handirik. Egia esateko, inor ez zebilen. Bonbardaketak egun batzuk lehenago amaitu ziren, baina oraindik kamioilarien mafia ez zen ausartzen batetik bestera ibiltzen. Ez zen seinale ona. Esan gabe doa, turistarik ez zegoen.

Honenbestez mugan bizi ziren haur guztiek bulego ondoan gelditu ziren auto bakar haiekin egin nahi zuten negozioa, barruan atze-

rritarrak zeudelako, inondik ere. Hainbat lekutan sosak ateratzeko modu bitxiak ikusi ditut. Hala ere, denen artean xelebreena kea saltzen duten haurrak dira. Burdinazko poto txiki batean harrikatza erretzen dute. Hari darion ke beltza saltzen dute. Zorte ona ematen omen du. Bashis eskatu eta kea saldu nahi ziguten.

- Muga itxita dago.

Ezin nion Pakistaneko funtzionarioari sinetsi. Bi hilabete eta gero entzun nahi nuen azken gauza esan berri ziguten. Muga itxita zegoen berriro.

- Zuen aurretik zihoazen lau kazetari atzerritar hil dituzte.

Eguneko albistea zen.

KAZETARIAK

Argazki honek ez du askorik balio, baina esanahi handikoa da niretzat. Flasharekin ilunpean eginikoa da, gela sistrin batean. Lurrean gaude eserita, arroza eta "nan" ogia eskuekin jaten. Kolore jakinik gabeko alfonbra batzuen gainean gaude, jan ostean lo egiteko erabiltzen genituenak.

Ander, Iñaki eta hirurok kamerari begira gaude. Gure taldean zetorren kameralari filipinar bat argazkilariari zerbait esaten ari zaio. Kristian kazetari kanadiarrak ez zuen batere gau ona izan eta ez dio inori begiratzen, afaltzen ari da.

Beste kazetari batek irratia belarrian dauka. Azken honen izenarekin ahaztu egin naiz, baina seguru nago ez zigula benetako nortasunik behin ere eman. Pashtu, urdu, pharsi eta inguruko beste hainbat hizkuntza pli pla erabiltzen zituen, eta horrek hasieratik jarri gintuen adi-adi. Berak zioen BBC ASIA irratian egiten zuela lan. Apustu egingo nuke Pakistaneko ISI zerbitzu sekretuarentzat ari zela.

Nekatu aurpegia dugu guztiok, hamaika gertakariren ondorengo afaria zelako hura. Ramadan baraualdiko arrats luze baten amaiera.

Mugazain pakistandarrek ez ziguten arrazoi zehatzik ematen Afganistanen sartzen ez uzteko. Aitzakia hil zituzten lau kazetari

atzerritarren kontua zen. Egoera ez omen zen segurua. Ulertezina zen hura, azken batean pakistandarrei berdin-berdin zitzaielako gure segurtasuna. Agian beldur ziren komeni ez zen zerbaitekin topo egingo ote genuen edo. Auskalo.

Iluntzen ari zen, hori zen okerrena. Zirt edo zart egin beharra zegoen, aurrera Afganistanera edo atzera Pakistanera. Mugan gaupasa egiteko lekurik ez zegoen, eta ilunarekin batera arriskuak handitzen dira horrelakoetan.

Autotik mugazainen txabola zaharkitura joan-etorrian ordu erdi inguru aritu nintzen, argudio eske. Pakistaneko hizkuntzan, urduz ari zelako ezer ez nion ulertzen bulegoan gehien agintzen zuen funtzionarioari. Beraz, sorpresaz, inork uste ez zuenean eta deus konprenitu gabe, garrasi batean ari zen morroiak bi herrien arteko burdinazko ate beltza jo zuen. Atzetik norbaitek - batek daki zer- erantzun eta atea zabaldu zion. Piperrik ulertu gabe jarraitzen genuen, baina bestaldekoa besoarekin egiten ari zitzaigun keinua unibertsala zen: "Aurrera" esan nahi zuen. Joateko baimena ari zitzaigun ematen.

Muga ziztu batean gurutzatu ordez, keinu hark buruhausteak handitu baino ez zigun egin. "Hi txo, lau lankide garbitu berri dituztela hor aurrean". Bazen taldean gauzak batere argi ikusten ez zituenik. Nor egongo da gure zain bestaldean? Segurua al da? Ez al zaigu besteei jazo zaiena gertatuko?

Ez dakit errezeloa edo herri hartan sartzeko gogo hutsala zen, baina bestaldean konfiantzazko norbait gure zain izango zela esan nien lankideei. Ez nekienarekin konbentzitu nahi nituen. Haq sendiko hainbat gazte zihoazen gurekin, eta haietako bat Nargarhar probintziako gobernadore berriaren seme gazteena zela esan zidan Yusufek. Kezkati zeudenei belarriak berotu nizkien.

Pakistaneko autoek ezin dute Afganistanen ibili, eta bestaldekoek ere debeku bera daukate. Beraz gure traste astun guztiak lepoan hartuta zeharkatu genuen Durrand lerroa.

Ate bat pasatu eta hainbeste urtetan gatazka bizian egon den herri batera sartzea esperientzia aparta da. Amets bat zabaldu eta barruan sartzea bezalakoa. Aldez aurretik ekarritako uste eta iritzi guztiak benetakoak diren frogatzeko aukera da bidaiatzea.

Han zeuden gure zain, bospasei pick up furgoneta. Alboan 15 gizon inguru, ordutik aurrera bazter guztietan mila bider ikusiko genituen armekin. Taldeko burua zirudiena etorri zitzaigun maletekin laguntzera. Ordurako ilunduta zegoen.

Leku gatazkatsuetara joatean badira bete behar diren segurtasun arau zenbait. Soilak eta funtsezkoak dira, baina askotan lagungarri izaten dira egoera korapilatsuetan ez sartzeko.

Seguruenik garrantzitsuena gauez ez ibiltzea da, eta herri arteko errepideetan, gutxiago. Ahalegindu behar da, aldi berean, autoz osaturiko konboi batean lehen edo azken autoan ez joatea, erasotzaileek ibilgailu horiek jotzen dituztelako lehendabizi.

Arauak ezin dira beti bete. Segurtasuna zer den ahaztuta han gindoazen, gauez, auto ilara bateko azken ibilgailuan, argi bakar bat ere ez zegoen herri batean, Jalalabad hirirantz.

- Ez duk ezer jazoko.

Inork ez zuen halakorik esan baina Ander, Iñaki eta hiruron buruan erregu bera zebilen jira-biran. Ez zen arriskurik ikusten. Ez zen ezer ikusten. Leihotik sumatu zitekeen gauza bakarra basamortua zen. Bide bazterretan ez zirudien zuhaitzak zeudenik. Harrikoskorrak, besterik ez.

Lau orduko bidaiaren ondoren bazirudien Jalalabadera heldu ginela. Hirietako sarreretan argiek egiten duten ongietorri alairik ez zegoen, nolanahi ere. Ilunpean zegoen hiria. Bonba estatubatuarrek lehertutako zenbait kuartel antzeman genituen hiriko atarian, baina oro har txikizioak uste baino arinagoak ziren. Hala ere, ezjakinaren beldurra nabari nion neure buruari.

Lehen eginbeharra hildako kazetariak nortzuk ziren jakitea zen, eta guztia nola gertatu zen argitzea. Gidariei irrati bidez adierazi zie-

ten atzerriko kazetari guztiak Intercontinental hotelean zeudela. Bertara abiatu ginen mamuz beteriko hiria zeharkatuz. Bederatziak baino ez ziren. Autorik ez zebilen, denda itxura zeukaten lokal guztiak itxita zeuden eta ikus zitezkeen gizonezko bakarrak bidegurutzetan zeuden, armekin zelatan.

Hoteleko sarreratik ez zen barruan argirik ikusten. Ate nagusia pasa ondoren, zelai luze baten bukaeran zegoen Intercontinental. Izen poxpolinegia bonbilarik gabeko komunzuloarentzat. Ezkaratzean aztoratutako kazetariak aurkitu genituen.

Autotik jaitsi bezain laster, TV3 telebistako Enric lankideak azaldu zizkigun nahasmenaren zergatiak eta xehetasunak.

- Kabulera iristeko asmoarekin abiatu gara goizean goiz, 12 autoko konboia osatuta. Hemengo agintariek arazorik ez zegoela esan ziguten, eta horrela izan da Sarowbiko zintzurrera sartu garen arte. Han ibai ondoko errepide zaharkituan lehen bi autoak geldiarazi ditu armadun gizon talde batek. Egoerak ez zeukan batere itxura onik eta beraz, badaezpada beste guztiok ziztu batean itzuli gara. Gelditu duten autoko gidariari joaten utzi diote, eta hark esan digu beste laurak han bertan hil dituztela. Bat espainiarra zen, El Mundoko Julio Fuentes.

Hoteleko generadoreak ematen zuen argi tristeak ez zuen ezer askorik erakusten, baina bakarren bat negar zotinka zegoen hoteleko pasiloan.

Gertatutakoari buruz ezer askorik ez zekien inork. Susmoa zen, hala ere, bidelapurrak izan zirela. Talibanekin zebiltzan ehunka mertzenario lanik eta soldatarik gabe gelditu ziren. Amerikarrengandik ihesi, mendirik malkartsuenetako kobazuloetan ezkutatuta bizi ziren, eta aldian behin errepideetara jaisten ziren diru bila.

Erasotako konboiko lehen autoan joatea egokitu zitzaienek zorte txarra izan zuten, besterik gabe. Lapurrek eta hildakoek bakarrik dakite zer gertatu zen, egia al den Maria kazetari italiarra bortxatzen

hasi zirenean Julio Fuentesek aurre egin ziela, eta borrokan lau kazetariak garbitu zituztela. Auskalo.

Sinestezina zirudien, baina hotel hartan bazen satelitearekin bat egiteko indarra zeukan antena bat. Ez zen afganiarrena, jakina. Turkiatik etorritako kazetari talde batena zen. Minutuko dolar mordoa ordaintuta, baina geneuzkan berri eta susmoekin albistea osatu eta satelite bidez ETBra bidaltzeko modua zegoen antenari esker. Horretan aritu ginen ondorengo orduetan.

Intercontinentalen zeuden lankideek ez ziguten kasu handirik egin hurrengo egunean itzuliko ginela esan genienean. Gertatutakoarekin nahikoa zeukaten. Nolanahi ere, guretzat norbaitek aukeratu zuen etxerantz abiatu ginen ordu batzuk gure zain zegoen taxi batean.

Talibanen bulegoa izandako etxe zahar bat zela esan ziguten, Afganistaneko etxe asko bezala zelai txiki batekin eta hesi garai batez inguratutakoa.

Jalalabadek ez zeukan batere itxura lasaigarririk. Gauerdirako ez zen askorik geratzen. Argi izpirik ez zen inon ikusten, aldian behin tiro hotsak zetozen nonbaitetik, urrutitik. Eta gidaria galduta zebilen. Ederki, txo.

Ilunpetik bide erdira agertu ziren gizon haiek ez zetozen gidariari azalpenak eman eta laguntzera, inondik ere. Argi zegoen. Autoaren atzeko aldean nindoan, Waheed gainean neramala. Baina kalea piztu balitz bezala, argi baino argiago ikusten nituen hiru gizonezkoak. Bide erdian, kalashnikova guri zuzenduta, gelditzeko agintzen. Gidariak ere berehala ulertu zuen erretxina zela egoera, eta autoa mantsotu zuen.

Hiru armadunen artean batek agintzen zuen, eta hura ari zitzaigun garrasika. Agian fusilarekin Kristian kanadiarraren burua lehertuko zuela esaten ari zen, gidariaren ondoan eserita zihoanari tiro egiteko keinua ari baitzen egiten.

- Don't move.

Ez mugitu, ohartarazi zigun Waheed itzultzaileak. Esan beharrik ez zegoen. Han ez zeukan inork dantzan hasteko gogorik.

Leihatila zabaldu zuen Kristianek. Hatza gatiloan eta bere buruari begira ari zen AK47 afganiar hura. Armaren atzean zerbait galdetzen ari zen jabea. "Password" hitza besterik ez genion ulertzen. Beno, nik hura ere ez. Etxeratzeko agindua bost ordutan gainditu genuenez, kalean ibiltzeko baimena ematen zigun gakoa, giltzarria nahi zuen. Passworda. Deus harrapatu gabe jarraitzen nuen, baina ez zen zaila konturatzea taxi gidaria passwordaz ahaztu zela. Urduri zegoen hura ere.

Garrasi eta irain sorta oparitu zioten ondoren Waheedek, gidariak, gure zaintzaileetako batek eta milizianoek elkarri. Joño, itxura txarra zeukan elkarrizketak. Egoera gero eta aldrebesagoa zela uste nuenean, ordea, denak lasaitu ziren eta joateko baimena eman ziguten.

Gerora hainbat aldiz pentsatu dut tiro bat jasotzeko aukera handiena gau hartan izan genuela, noizbait izatekotan. Etxeratzeko aginduari jaramon ez egitea gauza serioa da. Afganistanen, zer esanik ez.

Horregatik atsegin dut argazki ilun hau. Nekatu aurpegiak dauzkagu. Egun osoan jan genuen lehen mokadua zen, ramadam baraualdia bete-betean zegoelako. Arroza, azenarioa eta mahaspasak. Arroza kabuleko erara, ogi lehorrarekin. Hura Arzakek ere ez.

AUTOAK APARKALEKUAN

Intercontinental hoteleko zelaian ageri dira bost auto eta hiru ardatzeko kamioi handi bat, bata bestearen atzean. Autoetako bat gurea da, besteak hainbat lankiderenak eta kamioia, CNNko amerikarrena. Autoetan maleta bat sartzen ageri naiz. Beste guztiak ere trastez beteta daude. Jalalabadetik bagoaz.

Arroza jan edota tea gosaltzen zen leku berean egiten zen lo, lurrean, hautsak kolorerik gabe utzitako alfonbra baten gainean, arroz

aleak baztertu ondoren. Ez dirudi ohe atsegina, baina hala ere lehen gau hartan lauzpabost minutu behar izan genituen lo seko gelditzeko. Urrutiko tiro hotsak ez ziren gu aztoratzeko gai.

Goiza. Abdul Haq muyahidinaren anaia zen Abdul Qadir. 40 urte baino ez zituen izango, halere ile guztiak txurituta zeuzkan, burukoak eta bizar luzekoak. Turbante argia zeraman. Tipo dotorea.

- Nire gizonak goizean goiz abiatu dira Sarowbi ingurura zuen lankideen gorpuak jasotzera. Gure ustez bidelapurren kontua izan da. Talibanekin zebiltzan mertzenarioak lanik gabe gelditu dira eta orain lapurretan dabiltza.

Gu lasaitzeko asmo tinkoarekin etorri zen Qadir Intercontinental hotelera.

- Hemen gelditzen zareten guztion segurtasuna bermatuko dute nire gizonek, baina hiritik kanpo edozer gerta daiteke. Talibanak ez daude urruti, hemen inguruko mendietan dabiltza. Beraz, Kabulera ez joateko eskatuko nizueke.

Lankideok urduri genbiltzan. Kabul hiriburura iristeko asmoarekin iritsi ginen denok Jalalabadera eta horretarako Sarowbiko zuloa zeharkatzea ezinbestekoa zen. Beharrezkoa eta ezinezkoa. Gainera lau lankideen gorpuak Pakistanera itzuli beharra zegoen, berreskuratzen bazituzten behintzat!

Azken hilabeteko bonbardaketek hirian eginiko txikizioak grabatzera joan ginen.

Suntsitutako hiri guztien ezaugarria da normaltasuna. Gerra bizian egonda ere, herritarrek eguneroko erosketak egiten dituzte. Ahal duten heinean lagunekin hitz egiteko gelditzen dira eta dibertitzen saiatu. Ahalegin horretan zebilen Jalalabad ere.

Hirigunean ez zen gerraren zulorik ikusten. Baina 23 urteko gatazkaren ondorioak agerikoak ziren. Kale gutxitan gelditzen zen asfaltoa. Etxeak margotu eta zaintzea aspaldi ahaztutako kontua zen, eta sobietarrek bere garaian eraikitako monumentuetan urteak ziren uraren zuloari hautsa zeriola.

Nekazariek tiraka ekarritako gurdiak ziren denda bakarrak. Haien gainean letxuak, tomateak edota Afganistaneko sagar famatuak salgai.

Beste gurdi batzuetan harakinak. Haiek ziren eulien atseginekoak. Alboan lotutako ahuntzek lasai aurpegia zeukatela esango nuke, bazekitelako puska batean ez zituztela hilko, haragia nekez eros zezaketelako gehienek!

Burka urdinarekin estalitako emakumeak takoirik gabeko zapatekin zebiltzan, ibilera traketsean. Talibanek moztu zizkieten zapaten zorrozkeria guztiak, eromenak jotako norbaiten agindu inozo batekin. Burua aise berotzen zitzaion Mulah talde batek erabaki zuen takoien klin-klan hotsa infernuko zarata zela, gizonezkoen hezetasunak lizuntzen zituena. Talibanen eginkizuna izan zen egun batetik bestera takoi guztiak haustea, burka itsua ez ezik mutua ere izan zedin.

Eromenean, musika ere deaburuaren zurrunga zela erabaki zuten. Ondorioz Jalalabadeko autoek ez zizuten doinurik isurtzen ondotik pasatzean.

Erdi Aroko hiri bat zen. Japoniar jatorriko autoz eta arma automatikoz betea, hori bai.

Armak azokan erregalatzen zituztela zirudien. Gizonezko guztiek zeramaten AK fusil bana. Horrez gain puri-purian zeuden granada jaurtitzaileen tubo luzeak. Ametralladora handiak zeuden bidegurutze gehienetan, agian astoen ondoan gelditzen ziren T62 tanke sobietar zaharkituei bidea emateko.

Gerrak suntsitutako zenbait hiri ikusi ditut. Kabul Afganistanen, edota Bagdad Iraken. Haien aldean Jalalabad itxuraz osorik zegoen. Baina aipatutako hiru lekuek daukate begiratu bera. Gatazken gordinkeriak jasandako herritarren begizuloak berdin-berdinak dira. Heriotza gorroto dute, eta gorroto horrekin ohituta daude.

Hildako lau kazetariak gorputegira ekarri zituztenean ikusi nuen. Egur taulez eginiko hilkutxa soiletan ekarri zituzten, pick up baten

atzeko aldean. Morgera sartu zituzten garbitu eta bidaiarako prestatzeko. Hainbat kazetariren jokaera lotsagarria aipatu nahi nuke hemen. Irudi haiek erraz sal zitezkeela ohartuta, hilkutxak berriro ateratzeko eskatu zuelako bakarren batek. Gorputegian lan egiten zutenek ez zeukaten eskaria betetzeko aparteko arazorik, baina gorpuak behar bezala prestatu zain egoteko esan zieten. Bukatu zutenean etorri ziren.

- Orain nahi baduzue grabatu ditzakezue hildakoak. Hor dauzkazue gorpuak prest.

Gorpuak, jakina, estali gabe zeuden. Zaila izan zen sendagile haiei ulertaraztea gure kulturan ezin dela hildako baten aurpegia komunikabideetan hain erraz erakutsi. (Hildakoa zuria denean gutxiago, erantsiko nuke).

- Baina... Hartara telebistan ikusiko dute beraien sendiek benetan hil dituztela!

Ez zuen ezer ulertzen gorputegiko sendagileak. Milaka hildakoren ondoren zendu ziren lau haiei nolako garrantzia ematen genien ikusita, seguruenik atzerritarrak burutik geundela pentsatuko zuen agian. Gorpuak berriro hilkutxetan sartzera joan zen.

Jalalabadeko gorputegia mundu osoko telebistetan ikusi zen egun hartan. 23 urteko gerraren ondoren, lehen aldiz seguruenik.

Hilotzak berreskuratuta Jalalabadetik ahalik eta azkarren alde egitea zen helburua. Aurrera egiterik ez zegoenez, ia guztiok erabaki genuen Pakistanera itzultzea. Hiriko egoera segurua zela zioten agintariek, nahiz eta onartzen zuten talibanak alboko mendietan zebiltzala. Handik aste batzuetara ezagunak egin ziren mendiok, Tora Bora, "hauts beltza".

Ihesaldia hasi aurreko irudia erakusten du argazkiak. Azaroaren 21ean. Goizean goiz abiatu ginen Khyberreko mugara. Hamahiru auto eta kamioi bat, amerikarrena. Gure aurretik hildakoak zeramatzan furgoneta.

Aireportu ondotik pasatzean oraindik han zeuden aurreko eguneko Muyahidinak, armak eskuartean zeuzkatela norbaiten agin-

duen zain segitzen zuten. Nire artean pentsatu nuen agian gerra garaiak atseginago izango zituztela. Orduan aginduak, zeregina eta soldata zeuzkaten. Orain sasibakeak lan gabe utzi zituen, talibanek bazterrak izutzeagatik ematen zizkieten 40 dolarrak Tora Borara joan zitzaizkielako, ihesi.

Handik kilometro batzuetara aurkitu genuen kontrolean aurkakoa otu zitzaidan. Zer pentsatzen ote zuten afganiar ziztu batean, buztana hankartean genuela alde egiten ari ginenoi buruz? Beharbada guk ere muyahidinen tankera geneukan. Gatazka baten atzetik irudi eta informazio bila genbiltzan mertzenarioen itxura hartzen ote ziguten?

Beharbada ihes egiteko geneukan aukerak emango zien inbidia. Handik astebetera Europako hiri lasaietako "normaltasunean" egongo ginela bagenekien guk. Haiek bizimodu normala egiten saiatuko ziren. Suntsitutako hiri, oroimen eta begiratuen normaltasunean jarraituko zuten.

Elkarrizketa

Maite Gonzalez Esnal

Isabel Sarobe:
Hiria.

MAITE GONZALEZ ESNAL

Isabel Sarobe: Hiria

Gizakion neurrikoa izango bada hiriak, orografia basatia azpiratzea behar izaten du lehen-lehenik, baina lekuan lekuko historiari erreparatuz.

Espazioa neurriz eta tentuz taxutzeaz arkitektura arduratzen da. Neurri batean, arkitekturak eskulturgintzari zor dio asko, iturri horretatik edaten baititu forma-edukien arteko borroka airoski konpontzeko irtenbideak. Gizakion beharrak aintzakotzat hartuz, tamalez beti gertatzen ez dena, giza presentzia eremu mortua zen lautadari txertatuz, ondorio emankorrak lortu izaten ditu. Alderantzizkoa ere gertatzen da zoritxarrez.

Zumitz horiekin lan egiten duten teknikoek mila kezka dituzte; tamalez ez mila irtenbide. Perfekzione guztiak bezala, hiri perfektua amets eroa da, hiri perfektua inon ez da existitzen. Nolanahi, baikor senti daitezke arkitektoak eta, aldika, sentitzen dira, hatz puntekin bikaintasuna ukitu zorian egoten direlako. Zer esan handia dute aurrerapen teknikoek eta, noski, gero bezeroen gustua eta profesionalena beraiena ere.

Arkitektura jarduera gisa nondik nora dabilen, hala nola hiriaren beharrak zeintzuk diren jakiteko, Donostiako Arkitektura Fakultateko irakaslea den Asun Saroberekin egin dugu solas.

• **Galdera praktiko batez hasiz, zertarako sortu zen hiria?**

Ezer baino lehen esan behar dut hiri hitza arazo dudala. Historikoki,

hiriak gaztelerazko "villak" ziren, jauntxoren batek edo Erregek sortuak. Beraiek sortuak ez zirenean, beraien baimenarekin behinik behin bai. Gertatzen dena da orduko "villa" haiek ez daukatela zer ikusterik gaurko ziutatearekin; agian, historiaren epe batean, villa haiek bai ziren ziutateak. Adibidea gaurko Azpeitin eta Azkoitin dugu: villak dira, baina ez ziutate.

• Zehaztasuna onartuta, hiri bezala ezagutzen dugun espazioaren inguruan laburpen bat eskertuko nizuke. Zerk eragin zuen hiria sortzea? Borondate politikoak? Beharrak?

Antropologia aldetik begiratuta badirudi gizakia horrelakoa dela, beti taldean egon behar duela; beraz, gizataldearen bizimodua antolatzeko sortu zela esango nuke. Ikuspegi historikotik begiratuta, ordea, ekonomiak eraginda ikusten dut. Sorreran ekonomia zegoen, behar estrategikoak. Kostaldeko asko dudarik gabe ekonomiarekin lotuta sortu ziren, helburu militarrak ahaztu gabe.

• Grezian ere?

Han ere funtzio bat betetzeko eratu zen. Begiratzen badiogu polisaren antolamenduari, ikusten da nola dagoen esparru desberdinetan banatua: kirola egiteko espazioa, justizia administratzekoa, salerosketetarako eta giza-harremanen trukea bideratzekoa, arimaz ahaztu gabe. Arimaren beharrentzat tenpluak daude. Acropolis-a Jainko guztien ziutatea da. Hiriak gizakion beharrak bete behar ditu, leku fisiko bat gure beharren arabera banatua behar du izan.

• Harremanen gune izanda, nahasketa derrigor gertatu behar...

Hiria gehiketa guztien espazioa da, etengabeko gehitze baten emaitza. Egia da telekomunikazioak direla eta, orain krisian dagoela. Agian krisia esatea gehiegi da, baina egia da beste harreman klase bat sortu dela: birtuala, espazio fisikoaren beharra ez duena. Eta hiria, berez, giza antolamenduaren espazioa da.

Metropolia hiria da, baina beste eskala batean, han nahastea are errazagoa da, hortik datorkio daukan konplexitatea.

• **Beraz, herrien bilakaera eta historia lotuta doaz.**

Donostia Nafarroak itsasoa nahi izan zuenean eratu zen, portu bat behar zuelako sortu zen. Bilbo, Gaztelarekin zegoenez, ezin zuteneta. Beharrak aldatu al diren? Bizi dugun hiria, gaurkoa da. Ni bizi naizen hiriak ez ditu nire beharrak betetzen.

Donostia kanpotarrentzako da, agian..., ez dago beste irtenbiderik, baina ez da bizia daukan hiri bat; nire arloan, arkitekturan, errespetu gutxi dago. Duela mende bateko hiria da, ez dute gaur egungo bat egin nahi, gauza guztiz bitxia dena. Ze, inori ez zaio bururatzen ehun urteko kotxe batekin joatea, beharrak hain desberdinak direnean! Arkitekturan oraindik posible da eredu zaharkituak erabiltzea. Eskatu egiten dizute gainera! Irizpideak eguneratzeko asko falta zaigu oraindik. Komunikazio arloa ez da benetan planteatzen; hipokrisia dago, beti daude arrazoi ekonomikoak, edo promotoreen kontuak. Hipokrisia dago trafiko arazoan ere, jendeari ez zaio erakusten beste bitartekoak erabiltzen eta hiriak berak sufritzen du. Hain zuzen, jendearen beharrak betetzen ez dituelako, jendea ziutatetik kanpora joaten ari da bizitzera.

• **Amets erromantikoaren bila?**

Amets hori beti izan da. Beti izan dugu naturara itzultzeko ametsa. Gertatzen dena da, leku gogorra bilakatu dela hiria, hiribarnean hain beharrezkoak ditugun berdegunerik gabe. Erruz ari da eraikitzen, etxe berri asko egin dira, baina berdegune berririk nik ez dut ikusten. Auzo berrietan denak dira plaza gogorrak, zementuzkoak, isolatuak, naturarekin inolako loturarik ez dutenak. Donostia batean Kristina Enea, Aieteko parkea, Alderdi Eder... ondo daude, baina denak garai batekoak dira. Gaur diseinatzen ari den hiriak ez du "birika" horien beharra kontutan hartzen.

NATURA, GERO ETA URRUNAGO

• Etxebizitzen falta arazo larria denean, ezin da beste aldera begira geratu, baina egia da makinak jaten ari zaizkigula inguruetako mendiak.

Asko hitz egiten da espazioaren bilakaeraz. Bilbotik hasita Baionaraino hiri bat dugu. Mapa bat hartzen baduzu ikusiko duzu ia dena bat dela, ia tarterik ez dagoela; fisikoki horrela da. Antolamendu mailan eskala aldatu behar da: komunikazioak eta bestelako zerbitzuak distantzia luzeago hauei erantzuteko planifikatu behar dira. Dena dago beteta, lurralde bakarra bilakatu dira eta azpiegiturak ez daude eskala horretan pentsatuta. Zibilizazio eredu hau, bakoitza bere kotxean eta abar... Garapen eutsia, orekatua, denok ahotan dabilkigun hitza da, baina gero...

• Hiritar bezala, interbentzio gehiegi dagoela iruditzen zait niri. Mendia hiriarekin elkartzen diren gune gutxi horietan ere porlana sartu nahi da.

Hirien bokazioari erreparatu behar zaio, bokazio desberdinak dituzte euren historiaren arabera. Historiak harriak zizelatu ditu nolabait, gertatu zaizkien gauza on eta txarren arrastoak gordetzen dituzte. Desberdintasunak desberdintasun, Gasteiz bat edo Donibane Garazi bat ikusita, gizarte modernoaren beharrei erantzuteko jarrera desberdinak dituzte. Batzuek besteak baino kanporago begira daude.

Donibane Garazi bat ez dut ikusten kanpora begira diseinatu hiria bezala; irudia eta nortasuna komeni da bereiztea. Erdi Aroko arrastoak dituzten auzo asko, komertziogune bilakatu dira; irudia gorde, bai, gordetzen dutela, baina nortasunik gabe. Zoritxarrez alde zahar askori gertatu zaio hau: auzo bat *"souvenir"* dendez betetzen bada, auzo horrek ez du bizitzarik izango. Zorionez

badaukat salbuespen bat aipatzeko, eredu polita baitugu Lisboako Alfahaman. Kaleskaz betetako auzoa da, eta turistikoa izan arren bere nortasuna mantentzen du, "souvenir" izatetik urrun dauden gauzak saltzen dituzte gainera, oraingoz. Bazoaz pasieran eta betiko dendak betiko gauzak saltzen ikusten dituzu, auzoak bere arima gordetzen du; zapata konpontzaileen tailerrak, artesauen sotoak, tabernak... bizirik diraute. Eredu hori gustatzen zait. Non dago gakoa? Bada, alokairuak prezio onean mantentzen direlako betiko dendariek jarraitu ahal dute bertan. Jakina, Alfahamari belaunaldi hau bakarrik gelditzen zaio. Sartuko dira saltoki famatu horiek euren estilo berdintzailearekin, nortasuna kenduko diotenak, arima jango diotenak, eta akabo.

• **Arazo hori ez al doa zibilizazio eredu bati lotuta?**
Beltzetik zurira dago. Egia da hiriaren zentro-zentroak beti izango dituela zerbitzu gehiago, teorian guztiongandik gertuago dagoelako. Eta aldi berean beldurra ematen du. Zu bazoaz zerbait erostera eta globalizazioaren ondorioz opari berdin-berdina erosten ahal duzu Parisen nola Bilbon, arima galdutako hiri bilakatu baitira. Beldurra ematen du, zeren teknikoa naizen aldetik gauza asko gure eskutik kanpo gelditzen direla ohartzen naiz.

• **Modernitatea al da hori?**
Baina zer da modernitatea? Maila pertsonalean esango dizut engainu handi bat dagoela horretan, gauza materialen beharra gora doa, eta hor engainua dago. Ez dut hemen ikusten modernitate asko. Euskal Herrian esan nahi dut. Bizimodua modernoa izango da, baina arkitektura moderno gutxi ikusten da. Kursaal eta Guggenheim salbuespenak dira..., ale solte batzuk dauzkagu, baina eguneroko bizitzan modernitatea ez da sartu. Joan zaitez auzo berrietara, han ez dago ikuspegi berritzailearekin egindako ezer.

TRADIZIOA EZ DUGU ERRESPETATZEN

• Administrazio arkitektura berri-zale dugula esan al daiteke?
Egia da nekez ikusten direla obra modernoak diru pribatuarekin eginak. Dirudunek neo-klasizismora jotzen dute, etxearen estiloa aukeratzeko dirua duen klase sozialak iraganari begiratzen dio, eta gainera esan behar dut oso errespetu gutxirekin begiratzen diola.

• Zer lotura dago neo-klasizismoaren eta errespetu faltaren artean? Argitzerik ba al duzu?
Iraganari dekorazio gisa begiratzen diote. Nahi dute baserri antza duen etxe bat, baina antza bakarrik, ez dute benetako baserria nahi. Baserriak zurezkoa izan behar duelako eta nahi dutena hormigoizkoa da, materialen erabiltzeko arau eta ohiturei erreparatu gabe. Iraganaren idealizazio bati begira daude. Nik, arkitekto bezala, nahiago nuke modernitateari begira jartzea, baina ezin denean, gusturago gelditukо nintzateke benetan eta errespetuz iraganari begiratuko baliote. Ez duzu XV. mendeko baserri bat egingo, baina jokatu ahal izango duzu baserriaren benetako arimarekin. Gertatzen dena da hemen ez dagoela errespetua tradizioarekiko.

(...)

Inork ez du gurdi moderno batean joan nahi, bai ordea imitatutako etxe moderno batean bizi. Agian erru pixka bat badugu guk, ez dugu ondo erakutsi, edo ez dakit ... Gustuen munduan sartu gara, eta, gustuak... beti oso pertsonalak dira; baina, nago, badagoela beste zerbait gure kulturan. Arlo batzuetan izugarri modernoak, punta-puntako modernoak gara, inon diren modernoenak. Eta besteetan geurea deitzen diogun horri, izugarrizko atxikimendua diogu, hori bai, tradizioak gorde duen arimari erreparatu gabe.

• Hutsune guzti horien ondorio kaltegarriak ukatu gabe, arazoak beharko lukeen sakontasunez Hegatsek orrialde nahiko ez due-

nez gero, etxebarneko espazioaz hitz egin dezagun. Espazioak bizimodua baldintzatu dezakeela uste duzu?
Oinarrizko kontzeptuak oinarrizko elementuak taxutzeko erabili behar ditugu: argia, orientazioa, espazioaren antolaketa bera. Guztiak funtzio nagusi baten baitan egoten dira: nor bere esparruan eroso senti dadin, alegia.

GURE HIRIEN NORTASUNA

• **Iruñea, Gasteiz, Bilbo, Donostia, Baiona, Maule, Donibane Garazi. Zertan antzematen zaie bere iragana. Deskribatuko al dizkidazu bere nortasunaren arabera?**
Gasteiz, hiri lasaia ikusten dut espazio aldetik; nahiko ondo joan da handitzen. Poliki egin da gehiketa: Erdi Aroko kaskoa dago, aurreko mendeko aldea, zabalgunea eta orain eraikitzen ari dena.

• **Iruñea?**
Berdintsu, lasaia. Ez ditu beste hiriek dituzten alde txarrak.

Hasierako ideia azpimarratuz, berriro diot: hirien nortasunean gehiago ikusten dut, alde batetik, kostan dauden ala ez, eta industria izan duten ala ez. Bi faktore hauen baitan aurki daitekeelako garapen ekonomikoa.

• **Bilbo?**
Bilbo? Bilbo asko daude. Asko hobetu da baina auzo batzuk oso bazterrean gelditzen dira oraindik. Donostian gauza bera gertatzen da. Ze Larratxo eta Trintxerpe ere, esaterako, Donostia dira.

• **Eta?**
Antolatu gabe eraiki direla, bat-batean eta arrapaladan. Polis-aren ideiara bueltatuz, polis-en taxukeran ikusten da organizazio nahi

bat, diseinatzeko orduan antolatze helburua bazutela igartzen da, beste auzo hauek izan ez zutena. Zalantzarik gabe hobetu dira, espaloiak eta parkeak zainduagoak daude, eraikiak izan zirenean egon ez zen antolamendu nahi hura nabaritzen zaie. Hiriak gure beharrei erantzungo badie, ezinbestez, diseinua eta plangintza beharko ditu aldez aurretik.

• Maule nola ikusten duzu?

Maule beste muturrean, beste garai bateko hiri bezala dago han. Ez zaizkio mugimendu batzuk ailegatu, eta beharbada onerako; edo ez dituzte bilatu, nork daki. Nekazal kutsua gelditzen zaio, komertzioa ere badago baina nahasketa handirik ez da antzematen. Donibane Garazik badu nahasketarik, komunikazioak dituelako.

• Eta Baiona?

Alde zaharrak arima galdu egin duela iruditzen zait, gune batzuk gelditzen zaizkio baina... Hiru lau kale komertzialak eredu beraren errepikapena dira. Gasteizek hobeto gordetzen du bere nortasuna.

• Hiritarren beharrak aipatu dituzu, egunkariak irakurrita ikusten da adineko jendea gero eta deserosoago sentitzen dela hirian, urbanismo berriak arrisku franko sortzen diela.

Ez dugu ondo ikasi nahasten. Espazio batzuk geriatrikoak dira, eta zerbitzuak eskaintzen dituzten hirietan harreman komertzialak ematen dira, baina bizitzeko ez dira atseginak.

• Emakume arkitektuak proposamen berriak egiten ari omen dira. Esaterako, etxeko lanetarako diren objektuak ondo bistan, ezkutatu gabe edukitzea da haietako bat. Erakusteak etxeko lana beste maila duinago batean ipiniko lukeelakoan.

Ez dut uste arazoa hor dagoenik. Ez dut uste horrek gizonezkoak etxeko lanetarako bereganatuko dituenik. Profesional bezala kezka-

tzen nauena da etxeak behar guztiak kontutan edukita diseinatzea. Arazoa ez da plantxa edo erratza non kokatu, baizik eta kontutan izatea tresna horiek nola erabiltzen diren. Eta hori da gizonezkoek egin ez dutena. Ikusten dira sukalde batzuk politak, baina batere ez praktikoak. Guk hor abantaila dugu, gehiegi pentsatu gabe ere ondo dakigu sukalde batean behar diren mugimendu niminoenak ere zeintzuk diren, esparru domestikoak berez dituen behar desberdinak kulturalki ia " sartuta" dauzkagulako. Nahi gabe ikasia dugun zerbait da alde praktiko hori.

• Hiritar guztiongan pentsatuz haurrak gelditzen zaizkigu, nola ikusten dituzu beraientzako espazioak?

Berdeguneak, beraientzako ere "birikak" lirateke, ze parkera gurasoek eraman behar dituzte, gurasoen alboan jolasten dira. "Birika" direlakoek, haurrei ere emango liekete naturan libre ibiltzeko aukera.

Nik pertsonalki asko baloratzen dut trafiko zaratarik gabeko plaza bat, edo usainak gordetzen dituen hiri bat. Denok gogoan gordetzen ditugun bazter zoragarri horiek, inoiz topatu ditugun hiri usaintsu horiek, gure zentzumenei zerbait esaten dietenak irudi bat baino gehiago direlako, "Papaia berdearen usaina" filmean bezala.

Liburu-iruzkinak

▼

Oier Guillan

Ixiar Rozas

OIER GUILLAN

Urtzi Urrutikoetxearen *Auzoak*:
Gertuko auzien gauzak

GERTUKO AUZOEN AUZIAK

Ez ohiko liburua kaleratu du Urtzi Urrutikoetxea idazleak "Auzoak" titulupean. Ez ohikoa narrazio aukera ezberdinen artean ibilki, betiko moldeez landa forma aldetik lotura interesgarriak erabiltzen dituelako. Ez ohikoa eguneroko kaletarren artean arakatzen duelako pertsonaien bila, gizarteko ingururik apalenak ekartzen dituelako lerrootara, errealitatean bilatuz literaturtasuna. Ez nuke esango liburuak hasieratik bukaerara irakurlea harrapatzen duenik, baina baditu irakurketa aberasgarria egiteko elementu franko.

Bilbon kokatu du Urtzi Urrutikoetxeak bere lehen narrazio liburua. Idazlea Bilboko kaleak bezain zuzen darabilzkien liburuko lerrootan sumatzen da kalez kale urte luzez ibilia denaren hatsa, idazlearen kokaleku naturala. Bilbo "hiri" hitzaren baliokidea izan liteke euskal herritar askorentzat. "Herri-hiri" bezalako dikotomia interesgarri bezain urrunetan sartu gabe, kaleko bidaztiaren oroimen gertuarentzat nahiz herri txiki edo handiagoetan hazi diren hainbat oinezkoentzat, Bilbo "hiria"ren pareko nabarmenena da inguru gertuetan. Metropoli kutsua izan dezaketen beste europar hirien aldean hiri txikia, edonola ere.

Ariketa interesgarria eskaintzen du Urrutikoetxeak liburu honetan. Batetik azpimarratzekoa da liburuan agertzen diren istorio guztiei testuinguru orokor bat emateko saioa. Egun bat Bilbon, bere berezitasunak dituen udazkeneko egun bat izanik ere, edozein egun izan zitekeen denbora tartea, egunik arruntena pertsonaiak bezain protagonista bilakatzen den Bilbo hirian. Egunaren lehen argiekin

batera ekiten dio irakurleak liburuan barnako bidaiari, gauaren azken hatsekin amaitzeko. Istorioetan beste edozein bezain oparo suerta litekeen katebegia aukeratu du autoreak une batez xehetasunei arretaz begiratzeko.

Bestetik, irakurleoi erronka luzatzen zaigulakoan nago. Ez dut esango erraza denik irakurle gisa liburua osatzen duten hari guztiei arreta berarekin eustea. Ohiko egitura duten narrazio lanekin ohituta egon gaitezkeenaz lekora, denbora eta espazioak harilkatzen dituzten istorioek edo istorioen zertzeladek jauzi ugari ematen dituzte eduki nahiz forma aldetik: lehenengo pertsona tarteka, zenbait pertsonaiaren barne jarioa, jatorri nahiz adin ezberdineko protagonisten azalean sartzea, elkarrizketa zatiak... malgutasunarekin jolasten duten erregistroen kolax bat bilakatzen da liburua neurri batean. Testuinguruaz landa egitura aldetik mugak zabaltzen dituen lana da "Auzoak", hiri baten izaerarekin bat egiten duen ezaugarria, agian. Generoen arteko mugetan kokatzeak hortaz ez ohiko bilakatzen du narrazio bilduma horrek dakarren aberastasunarekin, baina narrazioen multzoak oso katebegi ezberdinak ditu eta zenbaitetan ez da oreka mantentzea guztiz lortzen, horrek irakurlearengan eragin dezakeelarik liburuarekin bat egiteko orduan.

Ez da hor amaitzen, baina, irakurlearen erronka. Norberaren (edonoren) bizitzaren literaturtasuna ikusteko gai denarentzat suerta liteke erakargarri liburua. Ez da ihes egiteko liburu bat, ez da argudio ikusgarri baten bidez irakurlea harrapatuko duen lana, ez da ameskeriatan murgilduko gaituen pertsonaia erakargarririk tartean... ez badugu egunero inguratzen gaituzten istorioak modu horretan ikusteko gaitasunik bederen. "Auzoak" parke batean nahiz autobusean bertan irakurtzen doanak une batez begirada altxatu eta hortxe bertan topatuko du liburuaren jarraipena, borborka, bizirik. Liburua berez ohiko narrazioetan abiapuntu izango ez liratekeen istorioez osatzen da, horrek egiten du harrigarri, istorioek berauek baino gehiago.

Eleberri edo ipuin bilduma batena baino trebeziaz lotutako narrazio multzoaren antza har liezaioke batek baino gehiagok lan honi. Berez zati batzuk bere horretan ipuinaren egiturara gerturatzen direla esan liteke, narrazio hauek ematen diote hain zuzen ere liburuaren osotasunari gorputz gehien. Nabaria da pasarte hauen garrantzia narrazio txiki nahiz elkarrizketa hutsak diren zatiekin alderatzean. Azken hauek bere horretan berez aski adierazkorrak ez diren arren, formari dagokionez beste ate bat irekitzen dute eta hari orokorra osatzeaz gain, zenbait kasutan liburuaren osotasunaren zirkulua ixten laguntzen dute.

Bilbo ugari

Bilbo asko dira bertan aurki litezkeenak. Bilbo berez ezagutu ezean, pertsonaien mosaikoa aski erakargarri suertatzen ote den galdetzen diot neure buruari. Bilbo (edo Bilboen arteko Bilboren bat) ezagutzen duenarentzat idatzitako liburua ote da "Auzoak"? Euskal Herrian agian ez da, ez, oso zaila horretan erortzea, denetik aurkitu litekeen arren, nor ez da inoiz egon, behin besterik ez bada ere, euskal hiribururen batean? Bilbo sakonean ezagutzen ez dutenen zerrendan sar nezake neure burua. Pertsonaien bidez Bilboko zonalde ezberdinak zeharkatzen dira, lekuan lekuko xehetasunei erreparatuz. Ikuspegi horretatik oraindik Bilbora gerturatzen naizenean, sarri gertatu bezala, galduta sentitu naiz, ez dut neure burua ondo kokatzea lortu pertsonaien bildumatik erauzten diren kale, txoko, zubi guztiei buruzko informazioan. Zentzu horretan urruntasuna sentitu dut, erreferentzia eskasagoak izanagatik zer edo zer galtzen ari nintzen sentsazioa.

Baina pertsonaiena da, azken batean, hiriaren ikuspegia zentzuz betetzen duen elementu nagusia. Bilboko biztanlegoa ezagutzeko zertzelada aproposak ziurrenik, beti ere kalekoen, herri xehearen, langileen ikuspegitik. Instituzioetako buruak, negozio gizonak eta bestelakoak ere, agertu, agertzen dira, zeharka bada ere, kaletar

askoren haserrearen jomugan. Azken urteotan ere aldaketa nabarmenak ezagutu dituen gizartea da bertakoa, esanguratsua da esaterako euskal idazkietan gero eta nabarmenagoa den munduko etorkinen gizataldea, sarritan paperik gabekoak. Globalizazioa Euskal Herriko uhartera ere iritsi denaren seinale, beste garai batean penintsulatik etorri zirenen afera batzuk zein besteak ahaztuta sarri.

Pertsonaien artean orainean harrapaturik bizi dira batzuk, itzala iraganean gatibu dutela besteak, gutxitan ageri dira etorkizunera begira. Hori izan liteke bertan agertzen diren beste Bilboetako bat, azken belaunaldiei loturiko oroimenarena. Zaila da egun kaleak bizi dituztenen begietatik oroitzea industrializatu aurreko Bilbo nolakoa zen, baina ez ordea industrializatu ondorengoa. Garai haren ondorioek biziki baldintzatu dute egungo Bilboren izaera, fisikoki eta batez ere, izaera aldetik. Garai hartan ezagutu zuen Bilbok, Euskal Herriko beste hainbat eskualdek bezala, penintsulatik etorritako hainbat etorkinen patua. Industrializazioak jendearen bizi baldintzak eta ohiturak guztiz baldintzatzeaz gain, Bilbok oraindik gainetik kendu ezin izan duen itxura hartu zuen, industria eta fabrika handien eskutik. Hiri berri horrek ezagututako gainbeherak ere biziki baldintzatu zituen bertako biztanleen oroitzapenak, besteak beste langile mugimenduari loturik heldutako borroken eskutik.

Bilbo horren oroitzapena gero eta urrunago egonik ere, artean bizirik darrai memoria kolektiboan, ia oharkabean sortzen ari diren Bilbo berriekin batera. Azken hamar urteotan, Europa gertuko beste hiri batzuetan gertatu izan den bezala, etorkinen presentzia gero eta nabarmenagoa da, injustiziaz gainezka egiten ari den mundu baten seinale. Etorkin askorentzat lanbide ez ezik elkargune bilakatu diren lokutorioek ere, bere presentzia dute hainbat narraziotan. Hiri batean elkar ukitu gabe mundu paraleloak osatzen dituzten guneen eredu izan litezke lokutorioak, baina era berean, elkar gurutzatzen hasten direneko zantzuak ere sumatzen ahal dira. Edonola ere, nabaria da artean euskaldun askoren nahiz garai bateko etorkinen eta

haien ondorengoen mesfidantza etorkin berriekiko, eta baita ere maila "baxuko" arrazakeria ere.

Ezin utzi aipatu gabe, halaber, kontraesanez nahiz istorio arras ezberdinez osatutako amaraun horretan euskal esparruko aferei loturiko apunteak. Beste istorioetan gertatzen den bezala, pertsonaren ikuspegitik landuak dira, pertsonaren amets, samin, borroka, itxaropen eta oroitzapenetatik. Belaunaldi ezberdinen arteko loturak ere suma litezke, seme presoa bisitatzetik itzultzen den gurasoarekin hasi eta kalean garai berriotako zigor penalen mehatxupean, gauaren babesaz, pintadak egiten dabiltzan gazteengana iritsi arte.

Bilbo hiriak badu Bilbo herria izan zeneko oroitzapen zantzurik ere, agian nabarmenagoa zenbait auzotan. Espazio berean elkar bizitzen dute modernitatea, edo agian hobeto esanda, interes jakin batzuen araberako moderno izan nahia, eta egitura erraldoietatik at kaleko herritar izatearen sentimendua. Sentimendu hori nabaria da liburu osoan zehar.

Istorio labur eta laburragoen amaraunean ateak zabaltzen dira, hari nagusietatik aldentzen diren hari txikiek pertsonak gainditzen dituen erraldoitasun bat iradokitzen dute. Narrazioetan agertzen diren pertsonaien eskutik hari ugarik egiten dute salto liburutik at, dela aipuen bidez, dela hainbat oroitzapen eta pasadizoen erreferentziaren bidez. Bigarren maila batean, guztiz garatu gabe gelditzen diren hainbat istoriok zabaldu egiten dute Bilbo eta liburua bera hiri-amaraun bat izan litekeenaren sentsazioa.

Urrutikoetxea espazio eta denbora berean elkar bizitzen duten hainbat mundu biltzen saiatu da "Auzoak" liburuaren bidez. Ezin esan Bilbo metropoli handien ereduarekin guztiz bat egiten duenik, baina dexente gerturatzen da. Bilbok badu gainera beste hiri batzuek ez dutena, edo neurri handi batean galdu dutena: kultura batekiko lotura, jendearen nongotasun artean bizia. Hiri batek dakartzan kontraesan guztiekin batera, noski. Neurri batean herri izateari guztiz utzi ez dion hiria izan liteke, agian, Bilbo. Pertsonaiak ira-

gana eta orainaren artean mugitzen dira, inguruan dutenaz ohartu gabe agian, baina tarteka elkar ukitzen hasita.

IXIAR ROZAS

Italo Calvino *Le città invisibili*
Emakumeen izenak dituzten matriuskak

Adimenean gauzatu eta gorpuzten zaizkigu Italo Calvinok *Le città invisibili* liburuan marraztu dituen hiriak. Ikusezinak badira ere; idazleak berak sinatzen duen hitzaurrean liburuko emakume izendun hiriak ezagutzen ez direla aitortzen duen arren.

Benetakoen antz handia duten hiri imajinarioen katalogoa osatu zuen idazle italiarrak. Eta sortan bakar bat aukeratu behar izatekotan, edo hiri ideala hitzez eraikitzeko asmoz badabil, benetako zailtasunak izango ditu irakurleak. Eta, *Berenice,* azkeneko hiriaren erretratuan barneratzerakoan, forma finkorik gabeko hirien mataza izango du buruan: Calvinoren espazio imajinario guztietan aurkitu ditu ezagutzen, maitatzen, gorrotatzen duen hiri horretan barneratzeko amuak, baina ezingo du inolaz ere mapa batean kokatu. Finean ikusezinak direlako hiriak, eskuraezinak, begipean hartu ezinezkoak, eta irudimenarekin bakarrik delako posible Calvinok itxuragabetzen duen mapan barneratzea.

Klasiko baten aurrean gaudela esan daiteke. Idazle italiarrak *Perché leggere i classici* [Zergatik irakurri klasikoak] saiakera- liburuan, liburu bat klasikotzat jotzerakoan kontuan izan behar diren 14 ezaugarri horietako batzuetan dioen bezala: "(...) klasikoak nortzuk garen edo noraino iritsi garen ulertzeko balio dute", edo "Klasikoak bigarren mailan uzten du gaurkotasuna, baina aldi berean ezin du alde batera utzi harrabots hori".

Ez alperrik, egungo eztabaidaren jomugan dagoen gaiari heldu zion Italo Calvinok 1972an lana kaleratu zuenean. Ordutik hona nabarmen aldatu zaigu paisaje urbanoa; industria hiritik metropolira jauzi egin dugu oro har, eta konturatu orduko bizitza osoa jarri

zaigu –edo jarrarazi digute— lanean. Maila globalean Inperioak etengabe elikatzen dituen gerren protagonismotik kanpo geratu delako, hiriak bere subiranotasuna berreskuratu nahi du. Horren ondorioz –erreinu txikien garaian bezala—, eraikuntza eta monumentu faraonikoak erabiltzen dituzte ikur edo marka bezala agintariek, eta horien bitartez, salgai jartzen da hiria bera.

Arkitektoek hiria zizelkatzen jarraitzen dutela, alegia, soziologo, antropologo eta filosofoek bertan kodifikatzen dena deskodifikatzen, animalia urbanoaren portaerak ulertzen saiatzen diren bitartean: Hitz egin al daiteke hiritartasunaz oraindik ere? Ez al da egokiagoa, Walter Benjaminek aurreratu bezala, *fantasmagoriaz* hitz egitea? Ez ote digu etorkinengandik bere exotismoa soilik erakartzen? Adituetako batzuek lotura zuzena dute agintarien bulegoekin. Besteek erre nahi dituzte bulego horiek, baina, nago, azkenerako hauen diskurtsoa ere bereganatua izaten dela agintarien aldetik, hastapenetatik, luzeegiak direlako olagarroaren tentakuluak.

Zentzugabekeriaren lurraldea

Italo Calvinoren lanean hari nagusi bilakatzen den kontakizunarekin ere gauza bera iradokitzen zaigu: Kublai Kan tartaroen enperadoreak Marko Polo bidaiariaren kontakizunak erabiltzen ditu mende dituen lurraldeetan gertatzen dena ulertzeko. Enperadorea konturatzen da bere botere mugagabeak balio gutxi duela gainbehera geldiezina hasi duen mundu batean. Ulertu nahi du gertatzen ari dena, aurre egin nahi dio ulertzeko ezintasunak sortzen dion huts existentzialari, eta beharrezkoak zaizkio horretarako veneziarraren kontakizunak, nahiz eta *nonsense*-aren (zentzugabekeriaren) lurraldean murgildu. Gianni Celatik *Il racconto di superficie* artikulua eskaini zion Calvinoren liburuari, eta bertan Marco Polo fabula narratzailea eta Kan eskribaua meta-jokoan eta paradoxan dabiltza, "Calvinoren ikusezintasuna ez-identitatetik dator, paradoxekin eta irudien bitartez lortzen duten bikoizketatik, eta horrexega-

tik ez dute identitate bat finkatzen uzten, idazketa tradizionalak ez bezala".

Italo Calvinok proposatzen digun bidaia etereo bezain ukipenez betearekin, modu metaforikoan eta maisutasunez deskribatzen zaigu Kublai Kanen lurraldeetan atzera biderik ez duen dekadentzia hori. Liburuan ez dago gerra globalik, dirua ere kanpoan geratzen da, nolabait, bizitzaren ezaugarri edo egoera funtsezkoenak agintzen dute hasierako orrialdeetatik amaierara: desirak, heriotza, trukaketa, zeinuak, izenak, begiak, hildakoak, zeruak. Celatik idazten duen bezala, "esan daiteke, beraz, idazketaren erabilpen estrategikoak mugimendua egiten duela nagusi, eta orrialdeaz harago doazen beste egoera batzuk eragiten dituela".

Karpetan gordetako hiriak

Amaierarik gabeko liburua dela esan daiteke *Hiri ikusezinak*. Hiri eta emakume izen bezainbeste kontakizun daude liburu honen barruan. Borgesek aipatzen zuena bete- betean lortzen da orriotan, alegia, irakurleak osatu eta jarraitu behar duela hiri imajinarioetan barrena, irakurleak eman behar die forma kontakizun guztietan zehar azalduz joaten diren hari ikusezinei.

Liburua oso astiro eta poemekin hasi zuela azaltzen du Calvinok aipatutako hitzaurrean. Idazterakoan serieak jarraitzen zituela aitortzen du, ideia bakoitza karpeta desberdin batean gordetzen zuen. Karpeta bat zuen objektuentzat, beste bat animalientzat, beste bat urtaroentzat, pertsonaia historiko edo mitikoentzat, bost zentzumenentzat. Beste karpeta batean gorde zituen bere bizitzako hiriak edo paisajeak, eta bestean hiri imajinarioak. "Eta haietako bat betetzen denean, hasten naiz bertatik atera daitekeen liburuan pentsatzen", idazten du. Hamar urte eman zituen hiriekin, batzuetan hiri tristeak otutzen zitzaizkion, alegerak besteak. "Egutegi moduko bat bilakatu ziren, nire hausnarketa eta umorea jarraitzen zuena". Idazlearentzat, eskuartean zituen orri guztiek ez zuten artean liburu bat osa-

tzen: "Azkenerako erabaki nuen 11 ataletan banatuko nuela liburua, bakoitza 5 testu izango zituena". Horrela ba, hiriak eta memoria, hiriak eta desirak, hiriak eta zeinuak, hiriak eta formak, hiri zoliak, hiri bikoitzak, hiriak eta begiak, hiriak eta trukea, ezkutuko hiriak... Izenburuak errepikatuz joango dira 11 atal horietan zehar, eta hiri guztiek matriuskak bezala irekiz eta itxiz doazen emakumeen izenak hartuko dituzte.

Atal bakoitza ireki eta ixten duten Marko Polo bidaiari veneziarra eta Kublai Kan enperadorearen arteko solasaldiek osatzen dute liburuaren haria. Jarraian garatuko den gaia aurreratzen digute bi hizlariek: besteak beste, enperadorearen hutsa, nola neurtu zorigaitza, nola hazi arintasunean, Marko Poloren Venezia edota gogoaldarteen kontrabandoa.

Kubatik Liguriara

Asko idatzi da Italo Calvinoren (Kuba 1923- Siena 1985) obra eta bizitzari buruz, baina idazleak berak datu biografiko gutxi eman nahi izan zituen: "Nire ustez obrak dira idazle batek duen garrantzizkoena (...). Horregatik ez dut datu biografiakorik ematen (...). Esango dizut galdetzen didazuna. Baina ez dizut inoiz egia esango".

Bere bizitzaren mapara gerturatze labur bat, beraz. Bi urterekin itzultzen da Liguriara gurasoekin, eta geroztik liguriartzat jotzen du bere burua. 12 urte dituela aurkitzen du irakurketaren plazerra Kipling-ekin, eta ordurako komikiak marrazten ditu. Zinemazale amorratua da, nerabezaroan bi film ikusi ohi ditu egunero.

Munduko Bigarren Gerra ihesean eman ondoren, Italiako Liberazioaren ostean erabakitzen du Italiako Alderdi Komunistan sartzea. Cesare Pavese eta Elio Vittorini lagun eta maisu dituela, gerturatzen da Einaudi argitaletxera. Hasiera batean liburuak saltzen, eta 1947an komunikazioaren arduradun bezala. Urte haietakoa da bere lehenengo liburua *Il sentiero dei nidi di ragno.*

1959an New Yorkera egin zuen bidaia luzeak berebiziko eragina izan zuen idazlearengan. 1964an eztei-bidaian doa Kubara, eta bertan jaioterria ikusteaz gain, Che Guevararekin biltzen da. Handik urte batzuetara Frantziako Oulipoa-ren eraginez komikotasuna eta egoera paradoxikoetara gerturatuko da bere idatzietan. Harvard Unibertsitaterako *Milurteko berriari begira sei proposamen* hitzaldi sorta idazten ari zela hil zen burmuineko hemorragia baten ondorioz.

Bere bibliografia osatzen duten liburu askotan espazioaz eta denboraz harago garamatza Calvinok. Eta, beharbada, *Hiri ikusezinak* obra da joera horren adibide esanguratsuena. Beharbada, emakumeen izenak zituzten hiriak hirien barruan sartzen dituelako eta narratibaren mekanismoak –Marko Polo eta enperadorearen bitartez— modu metaforikoan helarazten dizkigulako. Beharbada, fikzioaren oparotasuna amaigabea delako erabaki zuen bere poetika eta hiriak emakume izenen erraietan.

Liburua ixten duen solasaldiak adieraz dezake zein izan daitekeen Kan hainbeste arduratzen duen gainbeheraren irtenbidea: Ondoeza elkarbanatu, baina bilatu edertasuna eta utzi hari hiri eskuraezinetako zirrikituetan barrena kanporatzen. Nolanahi ere, liburu poliedrikoa da, eta Calvinok berak aurreratzen du hitzaurrean ez dela komeni azkeneko esaldiarekin geratzea.

Gure bizitzetan zehar gurutzatutako hiriekin ere antzeko zerbait gertatzen zaigulakoan nago: hiri guztiek bat egiten dute gure memorian, eta nahastu egiten zaizkigu oroimenetan bertako plazak, zuriak, kaleen izenak, aurpegiak... Bidaietan zehar irudimenak marrazten duen guztia itxuragabetzen du gure perzepzioak. "Gainazalaren nahasle nagusia da ametsa, gorputzaren sakontasunetik dator, eta nahastu egiten du, kondentsatu, haren hedadura hondatzen du", idazten du Gianni Celatik aipatutako artikulu horretan. Eta ez ote gara ari bilakatzen, gure hirien itzalen ametsa.

BIBLIOGRAFIA

Calvino, Italo. *Le cittá invisibili*. Milano: Mondadori, 1993.
Calvino, Italo. *Por qué leer los clásicos*. Barcelona: Tusquets, 1992.
Celati, Gianni. *Il racconto di Superficie*. "Il verri", 1973.
Buck- Morss, Susan. *Dialéctica de la mirada. Walter Benjamin y el proyecto de los Pasajes*. Madrid: La balsa de la medusa, 2001.

Hegats-en argitaratu nahi baduzu:

- Nora bidali: testuak posta elektronikoz edo posta arruntez EIEra bidali beharko dira *Hegats*-erako direla esanez.
- Nola bidali: testuak euskarri elektronikoan helarazi beharko dira.
- Data: EIEk urtean bi ale argitaratzen ditu (uztailean eta abenduan). Kasu batean zein bestean, testuak hiru hilabete aurretik bidali beharko dira.
- Karaktere kopurua: idatzi beharreko karaktere kopurua, sailaren arabera, honakoa da:
    - Literaturbideak: Prosa (ipuina...): 18.000 kk gehienez
      Poesia: 320 lerro gehienez
    - Kritikabideak: artikulua (saiakera...): 18.000 kk gehienez
    - Liburu-iruzkinak: 5.000-9.000 kk artean
- Idazkuntza-kontseiluak egileari hartutako erabakiaren berri emango dio.
- Idazkuntza-Kontseiluaren eta egilearen arteko harremana, ahal dela, e-postaren bidez burutuko da.

Harpidetu zaitez:

Urteko harpidetza: 12€ (urtean 2 zenbaki). Dendan ale bakoitza: 7 €

✂ -

HARPIDE-TXARTELA

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... P.K: ..... Tel: .....

Banku edo Kutxa: .....

Kontu-zkia (20 digito): .....

EIE

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
Zemoria 25
20013 DONOSTIA
Tel: 943.27.69.99; Faxa: 943. 27.72.88
e-posta: eie@eic.euskalnet.net

Ale honetako kolaboratzaileak:

- **HARKAITZ CANO** (Lasarte-Oria, 1975) Zuzenbidean lizentziaduna (EHU), *Lubaki Banda* literatur taldeko sortzaileetako bat izan zen 1993an. Euskal Herriko hainbat egunkaritan kolaboratzeaz gain, irrati eta telebistako gidoigile gisa ere lan egiten du.
- **GOTZON GARATE** (Elgoibar, 1934): Lizentziatua da Filologia Erromanikoan Deustuko Unibertsitatean. Filosofian doktore izendatu zuten, Madrileko Unibertsitate Complutensean. Honez gain, Marxismoan espezializatu zen bi urtez, Friburgoko Unibertsitatean.
- **JUAN RAMON MAKUSO** (Errenteria, 1961): Donostiako Filosofia fakultatean (Zorroaga) Filosofiako ikasketak burutu zituen. Fray Juan de Zumarraga-Durango BHIan Filosofiako irakasle bezala dihardu. Ontologiako Nazioarteko Kongresuaren antolatzaile batzordeko kidea da.
- **URTZI URRUTIKOETXEA** (Bilbo, 1977): Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da. Gidoilari eta kazetari jardun du lanean. 1988tik Santutxuko bertso eskolako kidea da.
- **ITXARO BORDA** (Baiona, 1959): Historiako DEA egina, postaria da lanbidez. 1974an hasi zen "Herria" astekarian idazten eta geroztik hainbat genero landu ditu. 2002an Euskadi Literatura saria eskuratu zuen *%100 Basque* eleberriarekin.
- **JOSEBA IRIONDO** (Azpeitia 1969): Euskadi Gaztean hasi zuen bere ibilbide profesionala. Lau urte egin zituen Madrilen, ETBko berriemaile. Azken zazpi urteetan Gaur Egun albistegien aurkezlea da. 2001eko udazkenean Afganistaneko mugan talibanek sartzeko baimena eman zain zegoen ehunka kazetarietako bat izan zen. 2003an Bagdadeko bonbardaketen lekuko izan zen.
- **MAITE GONZALEZ ESNAL** (Donostia, 1943): Filosofia eta Letrak ikasia, Bartzelonan. Itzultzaile lanetan aritua eta idazlea.
- **OIER GUILLAN** (Donostia, 1975): Kazetaritza ikasketak egin zituen eta gaur egun Mikelazulo Kultur Elkarteko koordinatzailea da.Hika aldizkarian iritzi artikuluak eta Gara eta Euskaldunon Egunkaria-ko gehigarrietan literatur iruzkinak idatzi ditu.
- **IXIAR ROZAS** (Lasarte-Oria, 1972): Kazetaritzan lizentziaduna eta Gidoilaritza Masterra egina. Kazetari eta gidoigile gisa lan egin du zenbait komunikabidetan.

Hegats

37

Literaturbideak

HARKAITZ CANO.
Kanpoko hiriaz (egunerokoa).

GOTZON GARATE.
Kanpoko hiriaz (gutunak).

Kritikabideak

JUAN RAMON MAKUSO.
Hiri politikotik hiri poetikora.

URTZI URRUTIKOETXEA.
Bilbo gure literaturan.

Txosten monografikoa: Hiriak.

ITXARO BORDA.
Metropolis.

JOSEBA IRIONDO.
Suntsitzen ditugun hiriak.

Elkarrizketa:

ISABEL SAROBE.
Hiria. Maite Gonzalez Esnal.

Liburu-iruzkinak:

OIER GUILLAN.
Gertuko auzoen auziak.
Urtzi Urrutikoetxearen *Auzoak.*

IXIAR ROZAS.
Italo Calvino *Le città invisibili.*
Emakumeen izenak dituzten matriuskak.

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA